



## 116. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2017ko abenduaren 28an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria:

Oier Korta Esnal jna.

Bertaratutako zinegotziak:

M. Cruz Alvarez Aparicio and.  
Gotzon Embil Unanue jna.  
Jon Joseba Iraola Rezola jna.  
Cristina Vicente Iciar and.  
Ane Arregi Urbietta and.  
Alex Oliden Antia jna.  
Arritokieta Iribar Egaña and.  
Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.  
Josu Arrieta Arriola jna.  
Ione Muguerza Egaña and.  
Miren Pilare Galfarsoro Madariaga  
and.  
Arritokieta Marañon Basarte and.

Ez bertaratuak:

Idazkaria:

Gorka Urgoiti Agirre



## EGUNEKO AZTERGAIK

### 1.- **OGASUNA.-**

#### 1.1.- **PROPOSAMENA.-**

##### 1.1.1.- **2018. URTERAKO TAXIEN TARIFA ONARTZEA, BIDEZKO BADA**

Alkateak gaia aurkeztu du.

Joseba Josu Azpiazuk (EH BILDU) galdetu du ea KPI-a igotzea proposatzen den. Bidalitako dokumentazioan orri bat falta baita.

Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) gaia kanpoan uztea proposatu du dokumentazio osoa lortu bitartean.

Alkateak adierazi du gaia kanpoan utziko dutela eta urtarrileko plenotik pasako dela.

-----

### 1.2.- **IRIZPENAK.**

#### 1.2.1.- **LARRETZO AUZATEGIA 22-24KO FATXADA KONPONTZEARI DAGOKION ZERGARI HOBARIA APLIKATZEA ETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

#### **ORDENANTZA FISKALETAN %95EKO HOBARIA BARNERATZEARI BUZUKO IRIZPENA: LARRETZO 22 ETA 24 ERAIKINEAN FATXADA ERABERRITZEKO PROIEKTUAN**

#### **AURREKARIAK**

2017ko azaroaren 22an Larretxo 22 eta 24ko jabekideek etxebizitzako fatxada berriztatzeako oinarritzko proiektuarekin batera (Espedientea: 2017 HBLT0065) Zumaiko udalari indarrean den Eraikuntza eta Obren Gaineko Zergen ordenantzak bere 3. artikuluan dioenaren arabera, %95eko hobaria aplikatzearen eskaera egin dio.

#### **IRIZPENA**

Horregatik, 2017ko abenduaren 21ean ospatzen den batzorde honek onartzen du eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria ematea, hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 5 (2 EAJ + 2 EH BILDU + 1 PSEE)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea erabakitzen da.

Zumaian, 2017ko abenduaren 21ean.  
Lioba Maiza Recondo



Zuzenean bozkatzeari ekin diote.

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak:** 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

**Kontrako botoak:**

**Abstentzioak:**

**ERABAKIA:** Larretxo auzategia 22-24ko fatxada konpontzeari dagokion zergari hobaria aplikatzea onartzen da

-----

### 1.2.2.- ETXEBIZITZETAN, KOMERTZIOETAN, OSTALARITZAN ETA INDUSTRIAN SORTUTAKO ETXEKO HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA OSORIK KUDEATZEKO UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEARI TRANSFERITUTAKO ESKUMENA ZEHAZTEA ETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

#### IRIZPENA

1. Urola Kostako Udal Elkarteak Batzar Nagusiak, 2016ko abenduaren 15ean egindako ohiko osoko bilkuran hasierako onarpena eman zion Urola Kostako Udal Elkartearen Estatutuen aldaketari. Horren ondotik, espedienteak jendaurrean erakusgai jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez (GAO 2016-12-29, 246. zk.). Jendaurrean erakusgai jartzeko arauko epean ez zen erreklamaziorik izan. Jarraian, batetik, estatutuen aldaketaren espedienteak Foru Aldundiaren aldeko txostena jaso zuen eta, bestetik, Udal Elkarteak osatzen duten udalen gehiengoak onartu du. Udal honek 2017ko maiatzaren 25eko osoko bilkuran onartu zuen hizpide dugun estatutu-aldaketa, araubideak ezartzen duen eran, osoko bilkurako legezko kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

Estatutuen aldaketaren helburua da 5. artikulua aldatzea, Estatutuek bere xedearen barruan aurreikusteko, hondakinen gaikako bilketaz gain, etxeko hondakin guztien bilketa, errefusa barne.

Estatutuak aldatzeko espedienteak amaitu ondoren, Urola Kostako Udal Elkartearen Estatutuak argitaratu egin ziren, osorik, eta argitaratzearekin batera indarrean jarri ziren (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko azaroaren 13koa, 216. zenbakia).

Hona hemen aldaketa-espedienteak hizpide duen 5. artikulua, aldatu aurretik eta ondoren:

5. artikulua

*5. artikulua.' Udal Elkartearen helburuak*

*Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkarteak osatzen duten udalerrien garapena eta udalerri horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udalen eskumenekoak diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era eskusiboan nahiz osagarrian):*

*Prestakuntza eta enpleguko programak: prestakuntza eta laneratzea.*

*Baztertuta gelditzeko ariskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzekeo programak. Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.*

**Hiri hondakinak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzuak eta Garbiguneen kudeaketa.** *Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.*

*Ingurumeneko informazio eta sentiberaze kanpainak*

*Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak*

*Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.*



*Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango, artikulua honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeak Estatutuak aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.*

5. artikulua, aldatuta

*5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak*

*Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkartea osatzen duten udalerrien garapena eta udalerri horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era eskusiboan nahiz osagarrian):*

*Prestakuntza eta enpleguko programak: prestakuntza eta laneratzeko.  
Baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programak.  
Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.  
Etxeetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak.  
Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.  
Ingurumeneko informazio eta sentiberatze kanpainak.  
Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.  
Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.*

*Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango, artikulua honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeak Estatutuak aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.*

Horrenbestez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 10.3, 19.2 eta 102. artikuluetan eta horiekin bat datozen artikuluetan aurreikusitakoak kontuan hartuta, udal honek erabaki du, Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten beste udalekin batera, ondoko arlo honetako eskumena gauzatzea era mankomunatuan, Urola Kostako Udal Elkartearen bidez: etxebizitzetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoa.

II. Mankomunitateak arautzen dituen araubidearen (6/2007 Foru Araua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen) eta Urola Kostako Udal Elkartea arautzen duten Estatutuen arabera, Urola Kostako Udal Elkartearen eskudantziak dira, besteak beste eta bere helburuak betetzeko beharrezko diren heinean, erregelamenduak garatzeko ahala eta zerga eta finantza arloko ahala.

Hortaz, Udal Elkartearen eskudantzia dira zerbitzuak arautzeko ordenantzak onartzea eta bere eskumenen esparruan eskaintzen dituen zerbitzuak finantzatzeko zerga arloko baliabide propioak zehaztea, araubideak aurreikusten duenaren argitara. Alabaina, hondakinak biltzeko zerbitzuari dagokionez, gaur arte Udal Elkarteak ez du administrazio-ahal hori erabili.

Ondorioz, hori guztia kontuan hartuta, Udal Elkarteak administrazio-ahal hori erabili eta emandako eskumena gauza dezan, udalak berariaz akordioa onartu behar du, Udal Elkarteari hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua eskaintzeko ematen zaizkion eskudantziak zehazteko.

Horrenbestez, aurreko ataletan adierazitakoaren argitara, Ogasuneko Informazio Batzordearen aldeko irizpena jaso ondoren, Osoko Bikura honek legezko aho batez (2 EAJ-PNV, 2 EH BILDU, 1 ES-SV), honako **AKORDIOA ONARTZEN DU:**

Urola Kostako Udal Elkarteari etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan eta industrian sortutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua osorik kudeatzeko transferitutako eskumenaren esparrua mugatzea, akordio honetan ezartzen diren zehaztasunen argitara

**Lehenik.-** Urola Kostako Udal Elkarteko etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan eta industrian sortutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak arautzen dituzten ordenantza eta erregelamenduak onartzea, aldatzea eta indargabetzea. Zerbitzuen kontratazioa eta horien aldaketa, likidazioa eta ebaizpena

Urola Kostako Udal Elkarteak arautuko du etxebizitzetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoa, Udal Elkartea osatzen duten udalen lurralde eremuan, ondoko araubide honekin bat etorritik: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 22/2011 Legea, ekainaren 28koa, hondakinei eta fur kutsatuei buruzkoa.

Zerbitzu hori arautzeko ordenantza bat onartuko da, helburu hauekin: hondakinak biltzeko zerbitzuak definitzea eta Udal Elkartearen eta zerbitzuaren erabilizailen arteko harremana arautzea, bestela esan, bi



aldean eskubide eta betebeharrak arautzea. Halaber, aurreikusiko du, atal bereizi gisa, zehapenen araubidea. Atal horrek tipifikatuko ditu 22/2011 Legeak aurreikusten dituen arau-hauste eta zehapenak eta ezarriko du berariaz zehapen-ahalmena izango dela udalena, udalek baitituzte, batetik, legez aitortutako aginte eta agenteak, arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakariak eta horien erantzule izan daitezkeen pertsonen nortasuna zehazteko ikuskapenak egin edo akta edo atestatuak egiteko eta, bestetik, behar diren administrazio-sailak, zehapen-ebazpena hartu aurretik bideratu beharreko zehapen- prozedurak izapidetzeko. Horri dagokionez, Udal Elkartearen kale hezitzaileek udalei bideratuko dizkiete salaketak.

Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatuko du Udal Elkartearen eremuko udalerrietako etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoaren kontratazioa nahiz kontratuak aldatu, likidatu eta amaitzea.

**Bigarren.-** Ordenantza fiskalak onartu, aldatu eta indargabetzea: zergak bildu eta kudeatzea.

Urola Kostako Udal Elkarteak onartu, kudeatu eta bilduko du Udal Elkartearen osatzen duten udalen lurralde eremuko hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuaren tasa. Horretarako, batetik, tasa hori arautzen duen ordenantza fiskala onartuko du eta, bestetik, tasa hori kudeatu eta biltzeko (borondatezko epean eta behartze bidean) behar diren hitzarmenak egingo ditu, tasaren sistemaren eraginkortasuna eta ekonomia ziurtatzeko helburuz.

**Hirugarren.-** Datu pertsonalen fitxategiak, sortu, aldatu eta ezeztatzea.

Urola kostako Udal Elkarteari transferitzen zaio hondakinen eroldako erabiltzaileen fitxategiaren titulartasuna. Udalek sarbidea izango dute fitxategi horietako zerga-datuetara, 15/1999 Lege Organikoaren (abenduaren 13koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa) 21. artikulua eta 2/2005 Foru Arauaren (martxoaren 8koa, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra) 92.1 b) artikulua argitaratu. Sarbidea izatea beharrezkoa da fitxategia eguneratzeko lanak (altak, bajak eta aldaketak) udalek eta Udal Elkarteak egin ahal izateko eta, horren bidez, heritarrei beren zerga datuetan aldaketak egiteko aukera bertatik bertara eskaini ahal izateko. Horrez gain, udalek datuetara sarbidea izatea beharrezkoa da udal zergen betebeharrak betetzeari buruzko ziurtagiriak egin ahal izateko.

Alkateak gaia azaldu du esanez azkenean hondakinak mankomunitatu egiten direla, errefuxa ere bai, eta jasotzeaz aparte ere bai, zergak, hondakinen zergak, tasak kobratzea ere bai, mankomunitate berak eramango dituela hemendik aurrera, udal hori ere baita ere eskumen hori ere Mankomunitatearen gain utziko duela; horrek guztiak daukan eraginarekin daudela egun eta horrek bost udalerrietan eragina duela aurrekontuetako sarreretan, orain arte udalak gestionatzen bait zituen hondakinen tasa horiek, residuo horiek, eta hemendik aurrera mankomunitatera pasako direla, orduan diru sarrera horiek sarreretan, aurrekontuetan ez dituela izango udalak, zuzenean mankomunitateak kobratuko dituelako.

## **ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

**Kontrako botoak:**

**Abstentzioak:**

**ERABAKIA:** irizpena onartu da:

**Lehenik.-** Urola Kostako Udal Elkarteko etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan eta industrian sortutako etxeko hondakinak bildu eta



garraiatzeko zerbitzuak arautzen dituzten ordenantza eta erregelamenduak onartzea, aldatzea eta indargabetzea. Zerbitzuen kontratazioa eta horien aldaketa, likidazioa eta ebazpena

Urola Kostako Udal Elkarteak arautuko du etxebizitzetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoa, Udal Elkartearen osatzen duten udalen lurralde eremuan, ondoko araubide honekin bat etorritik: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundearen buruzkoa; eta 22/2011 Legea, ekainaren 28koa, hondakinei eta fur kutsatuei buruzkoa.

Zerbitzu hori arautzeko ordenantza bat onartuko da, helburu hauekin: hondakinak biltzeko zerbitzuak definitzea eta Udal Elkartearen eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana arautzea, bestela esan, bi aldeek eskubide eta betebeharrak arautzea. Halaber, aurreikusiko du, atal bereizi gisa, zehapenen araubidea. Atal horrek tipifikatuko ditu 22/2011 Legeak aurreikusten dituen arau-hauste eta zehapenak eta ezarriko du berariaz zehapen-ahalmena izango dela udalena, udalek baitituzte, batetik, legez aitortutako aginte eta agenteak, arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakariak eta horien erantzule izan daitezkeen pertsonen nortasuna zehazteko ikuskapenak egin edo akta edo atestatuak egiteko eta, bestetik, behar diren administrazio-sailak, zehapen-ebazpena hartu aurretik bideratu beharreko zehapen- prozedurak izapidetzeko. Horri dagokionez, Udal Elkartearen kale hezitzaileek udalei bideratuko dizkiete salaketak.

Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatuko du Udal Elkartearen eremuko udalerrietako etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoaren kontratazioa nahiz kontratuak aldatu, likidatu eta amaitzea.

**Bigarren.-** Ordenantza fiskalak onartu, aldatu eta indargabetzea: zergak bildu eta kudeatzea.

Urola Kostako Udal Elkarteak onartu, kudeatu eta bilduko du Udal Elkartearen osatzen duten udalen lurralde eremuko hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuaren tasa. Horretarako, batetik, tasa hori arautzen duen ordenantza fiskala onartuko du eta, bestetik, tasa hori kudeatu eta biltzeko (borondatezko epean eta behartze bidean) behar diren hitzarmenak egingo ditu, tasaren sistemaren eraginkortasuna eta ekonomia ziurtatzeko helburuz.

**Hirugarren.-** Datu pertsonalen fitxategiak, sortu, aldatu eta ezeztatzea.

Urola kostako Udal Elkarteari transferitzen zaio hondakinen erroldako erabiltzaileen fitxategiaren titulartasuna. Udalek sarbidea izango dute fitxategi horietako zerga-datuetara, 15/1999 Lege Organikoaren (abenduariaren 13koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa) 21. artikuluan eta 2/2005 Foru Arauaren (martxoaren 8koa, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra) 92.1 b) artikuluan argitaratuta. Sarbidea izatea beharrezkoa da fitxategia eguneratzeko lanak (altak, bajak eta aldaketak) udalek eta Udal Elkarteak egin ahal izateko eta, horren bidez, herritarrei beren zerga datuetan aldaketak egiteko aukera bertatik bertara eskaini ahal izateko. Horrez gain, udalek datuetara sarbidea



**Zumaiaiko Udala**

izatea beharrezkoa da udal zergen betebeharrak betetzeari buruzko ziurtagiriak egin ahal izateko.

2017IAKU0008-003-002

-----

### **1.2.3.- 2018. AURREKONTU OROKORRAREN PROIEKTUARI, TALDE POLITIKOEK AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK AZTERTU, BOZKATU, ETA 2018RAKO ZUMAIKO UDALAREN AURREKONTUA OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**AURREKONTU PROIEKTUAREN PROPOSAMENA ETA IRIZPENA, 2018. URTERAKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEARI BURUZKOA**

#### **AURREKARIAK**

1.- 2017ko abenduaren 12ko Ogasun Batzordean, Zumaiaiko Udalaren 2018rako aurrekontu aurreproiektuaren zirriborra aurkeztu eta azaldu zen. Abenduaren 20 arteko epea eman zuen Gobernu taldeak emendakinak aurkezteko. 2017rako aurrekontuaren aurreproiektua, 2017ko abenduaren 20ko Ogasun Batzordean aurkeztu zen, baita inbertsioen eranskina, zorpetzearena eta konpromisozko kredituena ere. Horrekin batera, lanpostuen zerrenda, Udaleko plantilla organikoa eta aurrekontua gauzatzeko udal araua aurkeztu ziren.

2.- Beraz, 2018rako Aurrekontu proiektua 2017ko abenduaren 20ko Ogasun Batzordean, Zumaiaiko Udalaren 2018rako aurkeztutako aurrekontu aurreproiektuak osatzen du.

#### **2018RAKO AURREKONTU OROKORRAREN PROIEKTUA**

Ondorioz, 2017ko abenduaren 21ean, honako aurrekontu proiektu PROPOSAMENA onartzen da ondorengo botoekin:

Aldeko botoak: 3 (2 EAJ + 1 PSEE)

Aurkako botoak :

Abstentzioak: 2 EH BILDU

2018rako Aurrekontu Orokorraren proiektua Osoko Bilkurara eramatea erabaki da.

Zumaian, 2017ko abenduaren 21ean  
Zumaiaiko kontu-hartzaileak

Lioba Maiza Recondo

Alkateak artitu du, lehendabizi aurrekontuak aurkeztuko dituztela eta gero emendakinak; eta emendakinak bozkatuko dituztela eta ondoren aurrekontuak,

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): 2018ko aurrekontuak



## Zumaia Udal

2017IAKU0008-003-002

Aurkeztera goazen aurrekontuak, iaz bezala, zuhurtasun printzipioan oinarritutakoak dira, hau da, ziurgabetasun egoeretan balioespenak zuhurtasunez egin dira, arriskuak ekidinez eta errealitatean ematen diren sarrerak erregistratuz.

Aurrekontuak eratzeko orduan, lehendabizi sail guztietako arduradun eta teknikoekin elkartu gara, gure asmo eta helburuak betetzeko beharrezko baliabideak eta ekintzak beraiekin adostuta.

Oposizioaren proposamenak, entzun, aztertu eta jasotzen saiatu gara, helburu dugulako guztion ekarpenekin ahalik eta aurrekontu egokiena osatzea eta alderdi guztion asmoak jasotzea.

Zumaiarrak ardatz hartuta, herritarren bizi kalitatea hobetu eta bermatzea lehenetsita, proiektu eta programa berritzaile ugari jasotzen ditu aurrekontuak: Nagusien behatokia, Memoria Tailerra, Gazte On programa, Atorgune...

Irisgarritasunari, mugikortasunari, ongizateari eta hezkuntza arloari loturiko inbertsio garrantzitsuak ere jasotzen dira.

2018rako aurkezten diren aurrekontuak, arlo gehienak ukitu eta indartzen ditu: gizarte zerbitzuak, hirigintza, gazteria, berdintasuna, kirola, mugikortasuna, irisgarritasuna, hezkuntza, euskara, turismoa, kultura, ingurumena,...

Aurreko urteetan izendaturiko helburuei ere jarraipena ematen die, tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea, gizarte beharrei erantzuna ematea, herritarrei eskaintzen zaizkion zerbitzuak bermatzea, herritarren bizi kalitatea hobetzea, Zumaia eraikin publikoak mantentzea eta berriztatzea, kaleen mantentzea eta garbiketa, parkeak, lorategiak, argiteria publikoa,... hau da, zumaiarren beharretara egokitutako herria eraikitzea dira helburu nagusiak, beti ere, udal baliabideak eraginkortasunez eta zuhurtziaz kudeatuz.

### Sarrerak.-

Aurrekontu bateratuan ikus dezakezuen udalaren sarrerak 13.634.820, koak izango dira,

Kirol patronatuaren aurrekontua 1.336.779koa eta

Aurrekontu Bateratua guztira: 14.385.599.-

### UDALAREN SARRERAK.-

Sarrera arruntak % 92,87a suposatzen dute aurrekontu osoarenak eta

Kapital sarrerak % 7,13a suposatzen dute, esan bezala totalen udalak 13.634.820 € kudeatuko ditu.

Sarrera arruntak 12.662.919,00 eta

Kapital sarrerak 971.901,00

2017an baino %5,15 gehiago izango dira sarreretan.

I,II eta III kapituluak, 2018rako ordenantza fiskalak arautzen dituen zergen, tasen, prezio publikoen eta beste eskubide publikoei dagozkien tipoak eta tarifak aplikatuaz zenbatu dira.

**ZERGA ZUZENETAN**, 2017an baino 152.802 € gehiago aurreikusi dira, %5,12ko igoera.

2018rako ordenantza fiskalen moldaketak eta aurreko urteetako likidazioak kontutan hartuta eguneratu dira zerga hauen sarrerak.





**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

**ZEHARKAKO ZERGETAN**, 2017an baino 235.000 € gehiago aurreikusi dira, kalkulua 2018rako aurreikusten diren eraikuntzen arabera eginik.

**TASAK ETA BESTELAKO ZERGETAN**, 2017an baino 498.376 € gutxiago aurreikusi dira, %22.63 gutxiago. Aldaketa nabarmenenak:

2018an Oierrek esan duen bezala etxez etxeko zabor bilketaren sarrerak UKUEk kudeatuko ditu zuzenean lehenengo urtean 2017an ba 759.720 € izan ziren sarrea horiek

TAO sarrerak 2017ko exekuzioaren arabera zenbatu dira, 125.000 € eta

Gainontzeko partidak, aurreko urteetako likidazioen arabera eguneratu dira.

**TRANSFERENTZIA ARRUNTETAN**, 2017an baino 298.933 € gehiago aurreikusi dira, %4,22ko igoera.

Udal Finantzaketarako Foru Fondoan %3,57 igoera jaso da 222.944 €.

Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren ekarpena, totala 6.467.903 €, aurrekontuaren %47,44,a izango da.

UKUEtik 79.954 €ko sarrerak aurreikusi dira, urtarrilean udalak zaborren gestioan aurreikusiriko gastuen itzulketaren ondorio.

**6º KAP: INBERTSIOEN SALMENTETAN**, udalak Artadin duen lur sail baten salmenta eta 2018rako aurreikusten diren etxebizitza berrien salmentetan gainbalioa jasotzen da.

**7º KAP: KAPITAL TRANSFERENTZIAK**, Euskal Autonomi Erkidegotik eta Foru Aldunditik 2018an, inbertsioetarako espero diren diru-laguntzak jaso dira.

**8º KAP: FINANTZA AKTIBOETAN**, pertsonalaren kontsumorako maileguen partida desagertu da.

Mailegu hauen kudeaketa extrapresupuestario bezala joango da, Betean Auditoreek aholkatuta.

**9º KAP: FINANTZA PASIBOETAN**, IDAetik itzuli beharreko 504.219 €tako mailegu bat jasotzen da, udal kanpoko kale-argiteri instalazioak berritzeko. Mailegua 10 urtetan amortizatuko da, %0 interesarekin eta lehen 12 hilabeteetako karentzia izango du.

Laburbilduz, sarreretan balio zehatzak ezagutzen diren partidak, zenbateko zehatzekin jaso dira eta gainontzeko partidak Ordenantza Fiskalek izan duten moldaketak eta aurreko urteetako likidazioak kontuan izanda kalkulatu eta eguneratu dira.

Hau pixkat grafikoki ikusteko lehen esan dudana ez?

SARRERA ARRUNTAK 2018an batez ere zaborren kudeaketan sarreretatik guk aurreikusi ez ditugulako murriztu egiten dira 2018an sarrera arruntak %92,87a suposatzen zuten eta 2017an aldiz, %96,17a suposatzen zuten aurrekontuan

KAPITAL SARRERAK, 2018an aurrekontuaren %7,13a suposatzen dute 2018an eta 2017an aldiz, kapital sarrerak %3,83a suposatzen zuten



2018ko GASTOETARA pasatzen gara,  
Esan bezala GASTOETAN SARRERETAN bezala aurrekontu bateratu totala  
14.385.599 €

UDALARENA GASTU ARRUNTA 11.342.851 €

ZORPETZEA 155.665 € eta

KAPITAL GASTUA 2.291.969 €

KIROL PATRONATUAN aurrekontu osoa 1.336.779 €

GASTO ARRUNTETARAKO 1.136.779 € ETA

KAPITAL GASTORAKO 200.000 € izango ditu

Zumaia udalak egingo diren transferentziak kirol patronatuari gastu arruntetarako 386.000 €takoa izango da eta inbertsioetarako egingo zaion transferentzia 200.000 €takoa izango da, 2017an, 2016ko transferentzia bikoiztu egingo dugu. Lehenengo urtean 96.000 € zan ziren, bigarren urtean 100.000 eta ez!!

Lehenengo urtean 115, bigarren urtean 95, 96.000 izan ziren eta hirugarren aurrekontu honetan partida hori inbertsioetarako bikoiztu eta 200.000 utzi dugu.

Udalari dagokion aurrekontuak ikusirik GASTU ARRUNTA 11.342.851 aurrekontuaren %83,19a .-

PERTSONAL GASTUA aurrekontuaren %23,67a

ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK aurrekontuaren %43.24

TRANSFERENTZI ARRUNTAK aurrekontuaren %14,67a; transferentzi arruntetan ere bai ikusi dezakezue murriztu egiten direla 2017koarekin konparatuz eta hor berriro UKUEra goaz ez? UKUEri egiten zaion transferentzia ere murriztu egiten da berak kudeatzen dituelako zaborren sarrerak ez?

ZORPETZEA aurrekontuaren %1,14a

KAPITAL GASTOA aurrekontuaren %16,81a lehenengo urtean baino 5,15 € gehiago kudeatuko ditu udalak 667.781 € gehiago izango ditu gastu eta inbertsioetarako.

Orain joango naiz pixkanaka PERTSONAL sailak eta programak edo programa berriak, udal sail desberdinak pixka bat sakonago aztertzen denok ulertzeko pixkat zenbakiak bakarrik ikusten direla eta orduan

PERTSONAL SAILEAN ikusten duzue 2018an aurrekontuak 3.342.028 € jasotzen dituela.

Lehenengo urtearekin alderatuta % 6,42 an handitu da. Arrazoiak?

Udalak ematen dituen zerbitzuak hobetzeko asmoz, honako berrikuntzak jaso dira aurrekontuan:

**UDALZAINGOAN:**

Ofizialordearen lanpostuaren sorrera, RPT/Plantila organikoan lanpostu berri hori sartuz.



Deialdi bateratuan atera diren 3 plaza betetzeko prozesuan, akademian praktiketako funtzionario gisa egongo diren 7 hilabetetako oinarriko ordainsariak jaso dira.  
2 errefortzu ekaina-iraila bitartean ere jaso dira.

**KONTUHARTZAILETZAN:**

Gaitasun nazionaleko diruzain lanpostuaren balorazio probisionalara egin da. RPT/Plantila organikoan ez da jaso sorrera, baina bai jaso dela dotazio ekonomikoa.  
Erdi mailako teknikariaren balorazioaren emaitzak jaso dira aurrekontuan.

**LUDETEKAN:**

Hizkuntza errefortzurako eta behar berezietarako haurren arretarako ludotekako profesional pertsonalaren lanaldiak handitu dira.

**TURISMON:**

Turismo hazkundera kontutan harturik, sailaren pertsonal baliabideak errefortzatu dira 2018an ere, 2017an bezalaxe.

**INFORMATIKAN:**

Informatika teknikari laguntzailearen ordainsariak balorazio berriarekin jaso dira.

Ordainsarien igoera, erretiro aurreratuen kalte ordainak, edo lanpostuen balorazioen ondorioz sortu daitezkeen aldaketa ekonomikoen aplikaziorako, kreditu globalean jaso dira, jaso dira 64.273 €

**LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA:**

Plenoan onartu berri den Lan Arriskuen Prebentzio Planaren inplantazio eta garapenerako 50.000 € jaso dira.  
Eraikin publiko guztietan larrialdietarako planak eguneratzea ere aurreikusten da 50.000 € horiekin.

**HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ)**

Herritarren arreta zerbitzua proiektua garatuko da baita ere 2018an SACa edo herritarren arreta zerbitzua 2017an lantzen ibili garen proiektua da eta 2018an harrera unifikatuaren proiektua garatuko da.

**UDALZAINGOAN:**

Udaltzaingoan 2018rako 633.866 € bideratuko dira, lehengo urtean baino %6,87a igo da.

Aurrekontuan pisua, %4,65koa da

Hemen aurreikusten diren edo egingo diren gauzak:

Udaltzaingoko pertsonalaren berrantolaketa: ofizialordearen figura berria lehen esan bezala,

Udaltzaingoaren eraikinaren artapena eta berriztapena: 2017an proiektua eginda dago, egokitzapen bat eskatu zaio proiektuari eta 2018an gauzatuko da. Inbertsiotarako 2017ko partida luzatuko da, 130.000 € zehazki luzatuko dira 2017tik 2018ra inbertsio hori gauzatzeko.



**TURISMOA:**

Turismorako 300.455 € bideratuko dira, lehengo urtean baino %7,65a gehiago eta

Aurrekontuan turismon duen pisua %2,20koa da.

Hemen aldaketa nabarmenenak:

UKUEren turismo sailerako transferentzia 16.053 €tan handitu da eta zumaia parte hartuko du bertatik bideratuko diren dinamizazio eta ekintzetan.

Turismo planaren garapenerako 18.000 € jaso dira, diagnostik ateratzen diren emaitzak aztertu eta landu ahal izateko.

Euskara eta kultura balorean jarriko dituen bisita gidatuak nahi dira abian jarri baita.

**EUSKARA:**

Euskarari dagokionez, 2018an 292.250 € bideratuko dira, lehengo urtean baino %9,58a igoko da.

Aurrekontuan pisua %2,14koa izango da

Euskararen egin nahi diren gauzak

Euskararen erabilerari buruz sentsibilizazioa lortzeko lan egiten jarraituko dugu

Euskararen historia soziala aztertzeko beka jarriko da martxan

Euskarak 365 egun egitasmoa

Etorkinentzat euskara ikastaroen antolaketa.

Kapitulu 4ko igoera, ikusten baduzue %15,05a igotzen da 2017arekin alderatuta, UKUEren euskara sailerako transferentziagatik da, UKUEk %62,40 handitu du partida euskarari dagokion partida.

**KULTURA:**

Kulturan 805.353 € bideratuko dira, lehengo urtean hortxe-hortxe, zenbateko berdina bideratuko da kulturara,

Aurrekontuen pisua % 5,91koa du kulturak

Kulturan:

Kultur ikastaroak bultzatzen jarraituko da

Kaleko pintura lehiaketa, lehen bi urtean behin egiten zen, urteroko ekintza izatera pasa,

Zumaia kultur mailan dituen ekimenak eta programazioak nibel berdinean mantendu,

Liburutegian ordutegi zabalarekin jarraitzeko harrera kontu sail berria sortu da eta nahiz eta kontutan igoerarik ez ikusi bai kultur sailetik arte eszenikoak eskoletan ematen den arte eszenikoak kultur sailetik egiten ziren lehen eta horiek orain aurten pasa ditugu hezkuntzara, horregatik ez da aldaketarik ikusten zenbakietan baina da gehien bat ekimenak pasa direlako kulturatik hezkuntzara.

**EKONOMIA ETA ENPLEGU SUSTAPENA:**

Ekonomia eta Enplegu sustapenari dagokionez ikusten duzue hemen eboluzioa 2015etik 2018ra.

2018an 233.547 € bideratuko dira.



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

Udal Gobernuak lehentasunezkoa ikusten du ekonomia eta enplegua sustatzea.

2016an eman zituen lehen urratsak, Mankomunitatearekin elkarlanean, bertako baliabide pertsonalak erabiliaz, Zumaian ENPLEGU ZENTRUA irekitzeko eta 2018rako jarraipena eman du.

2018rako Enplegu Zentroarekin jarraitzeaz gain, Mankomunitateak garatzen dituen ekintza eta programetan parte-hartzen jarraituko du.

Enpresa Garapena, laneratzeko zerbitzuak eta lanbide heziketa programetan parte hartzeko, Zumaia udalak 233.547 €tako transferentzia bideratuko du UKUEra 2017an baino 44.308 € gehiago. 2017arekin konparatuz diferentzia %23,41koa da.

### **GIZARTE ZERBITZUAK:**

2018an gizarte zerbitzuetara bideratuko den zenbatekoa 1.631.713 € izango dira.

2017an baino %5,23a gehiago.

Aurrekontuan pisua % 11,97koa da.

Herritarren bizi kalitatea hobetu eta haien ongizatea bermatzeko, ezinbestekoa da, herritarren gizarte beharrei behar bezala erantzutea.

Gizarte zerbitzuei, udal gobernuan sartu eta berehala hasi ginen buelta ematen, momentuko zerbitzuak hobetuz eta egungo pertsonal baliabideak indartuz.

Orain arte emandako pausuak: gizarte teknikari baten kontratazioa; etxez-etxeke laguntza tasak 21,29€tik 16€tara jaitea lanegunetan eta 22,87tik 17€tara jaitea jaiegunetan; Esku-hartze psikosoziala eta sozio hezitzailea berrantolatzea, psikomotrizitate zerbitzua indartzea,

2018rako aurrekontuak jasotzen dituen programa berriak:

UDAL GIZARTE GIDA ETA INFORMAZIOA OSATU eta herritarren eskura jartzea.

GIZARTE ZERBITZU ARTXIBU ANTOLAKETA PROGRAMA

MEMORIA TAILERRA: Adinduek memoria entrenatu eta lantzeko teknika eta ariketa ezberdinak egiteko tailerra,

ATORGUNE: AISIALDIA ETA KIROLA ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONENTZAT

Eta azkenik,

Zumaian onartutako, 2015-2025eko plan estrategikoan hainbat lerro eta helburu estrategikoak adostu ziren.

Nolako Zumaian nahi duen galdetu ondoren honelakoa adostu zen:

“Bizitzeko herria nahi dugu, herri eroso, jasangarria, irisgarria, segurua eta erraz mugitzeko modukoa.

Bereziki, Pertsonak oinarri izango dituen herriaren alde egin eta horretarako seigarren helburu estrategiko modura jaso da, “herritarren ongizatea hobetzeko kalitatezko zerbitzuak eskaintzea”



## **Zumaiako Udala**

2017IAKU0008-003-002

Zehaztu diren proiektu estrategikoen artean, 6.3.a "Baldintza konplexu eta zailtan bizi diren herritarrei laguntza ematea" eta 6.4.a "Adinekoen beharrak jaso eta horiei erantzuteko zerbitzuak garatzea" dira

Bi proiektu estrategiko hauek oinarri hartuta, 2018an ADINEKOEN BEHATOKI PROIEKTUA aurrera emateko apustua egiten da.

Programaren helburua da Zumaian bizi diren pertsona nagusien egoeraren azterketa sakona egitea, horrela adineko zumaiarren ezagutza integrala jaso, haien beharrak identifikatu eta horien arabera, gaur egun dauden zerbitzu eta prestazioak baloratu eta horiek momentuko zein etorkizuneko beharretara egokitzea. Era berean, adinekoei Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen diren zerbitzuen berri ematea ahalbidetuko du, eta baita bakoitzaren egoera aztertuz, erantzun zuzen eta azkarra ematea ere.

### **GAZTERIA:**

2018AN Gazteriak, gazteriarri 191.801 € bideratuko dirua, 2017an baino %23,53a igoko da.

Aurrekontuan pisua %1,41ekoa da

Gazteria arloan, gazteen emantzipazioa sustatzeko ALOKAIRU BEKA programa berria sortu zen 2017ko irailean.

2017ko abenduan, 13 onuradun ditu jada. Programaren oinarriek jasotzen dituen diru sarrerak onuradunek bere osotasunean jasoko dituzten bermea izateko, 63.000 €ko partida jaso da ALOKAIRU BEKArako.

Helburu eta nahia da aurtengo zein datorren urtera begira animatu daitezkeen gazte guztiei erantzuna ematea.

### **BERDINTASUNA:**

Berdintasuna, 2018an 99.405 € bideratuko dira aurrekontuan

Sail honek aurrekontuan daukan pisua % 0,73koa da

2017arekin alderatuta %33,79 ko igoera izango du

2017an indartu zen Formakuntzaren kontu sailari jarraipena ematen zaio

III berdintasun Plana osatuko da

luz, 2016an abiarazitako zaintzaren inguruan ikerlan bat egiteko Beka berreskuratuko da.

### **INGURUMENEAN:**

2018rako 617.483 € jaso dira, 2017 urtearekin alderatuta ingurumenari %28,57 gutxiago bideratuko da baina oraintxe azalduko dut zergatia,

Ingurumenarekin arduratsuagoa izango den herria garatzeari jarraipena emango diogu, orain arteko sentsibilizazio kanpainak eta ekimenak mantenduz eta programa berriak sortuz:

GAZTE ON programa: gazteei zuzendutakoa. Helburua da, ikastetxeen eta Udalaren arteko elkarlanaren bitartez, gazteak ingurumenarekin eta naturarekin lotutako auzo-lanetan inplikatu eta sentsibilizatzea eta aldi berean, gazteei haien helburuak eta ekimenak aurrera eramateko pizgarriak sustatu eta eskaintzea.



Bi estudio berri egingo dira 2018an: Amiantoaren azterketa Zumaian eta Azterketa Paisajistikoa.

Hondartzetako zaintzaren ordutegi luzapenari jarraipena emango zaio.

Hondartzetan 2017an egindako inbertsioei amaiera emateko 21.500 €tako partida jaso da 2018an.

Gero ikusten duzue esan dudan bezala 2018 eta 2017ko diferentzia %28,57 gutxiago bideratu dela ingurumenean, fijas baldin bazarete 6. kapituluagatik da eta da inbertsioengatik, 2017ko aurrekontuak Marianton Parkearen berritza eta estaldura jasotzen duen kontu saila 2018ra luzatuko da, parkearen exekuzioa 2018an emanaz. Baina partida klaro 2017an jasotzen du eta horregatik zenbakiak ematen dute horrela.

Amaitzeko Beheko plazan haur parke bat ezarriko da. Haur parkeak eta jardinak eta ingurumenean daude kontu sailetan horregatik.

### **HEZKUNTZA:**

Hezkuntzari dagokionez, 2018an 840.433 € bideratuko dira 2017an baino %21,04 gehiago bideratuko dira hezkuntzara

Aurrekontuan pisua % 6,16koa

Gaurko HEZKUNTZA biharko ETORKIZUNA

Etorkizunerako ongizatearen giltzarria hezkuntza eta ekintzailtasuna direlako, ezinbestekotzat jotzen dugu bi esparru horiei esfortzuak bideratzea, esan dudan bezala 840.433 € hezkuntzarako, aurrekontuaren % 6,16a

Burutuko diren ekimen eta ekintza esanguratsuenak honako hauek dira:

Sagarbide eraikineko parkearen egokitzapena

Hobekuntza lanak hezkuntza publikoko eraikinetan

Herriko haurreskolen mantentze bideratutako kontu sailaren bikoizketa

Aita Mari haur eskolako aterpea eraikitze proiektuaren idazketa (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin sinatutako akordioaren baitan jaso) eta ondoko parkearen egokitzapen proiektuaren idazketa

"Zumaia curriculum" garatzeko aurre lanak

Maria eta Jose ikastetxearekin sinatutako hitzarmenaren berritza

Antzerkia eskoletan lantzeko ekimenaren jarraipena, lehen esan dudan bezala antzerkiaren ekimena lehen kulturatik eramaten zen baina hezkuntzara pasa da eta gero

Herri eskola festan Oikian

Ikastetxeekin eta elkarteekin elkarlanean jarraituko dugu, Hezkuntza balioan jartzeko asmoz.

### **HIRIGINTZA:**

Bide publikoen mantentzea, hiri altzariak, baseri bideen mantentzea eta seinalizazioa, hobetze obrak auzo bideetan, erabilera anitzeko eraikinen konponketak eta berriztapenak,... hartutako bideari jarraipena emanez, herriaren funtzionamendu egoki baterako oinarrizko mantentze 190.000 € bideratuko dira.

Inbertsio totalak aurrekontuaren %15,34a suposatzen dute 2.090.969 €.

Zumaia udalaren inbertsioez gain, 2018rako Madrilgo Kosta Zuzendaritzak, Santiagoko hondartza eta eremua egokitzeko 1.700.410 € bideratu ditu, beraz inbertsio horiek ere gauzatuko dira Zumaian 2018an.

Aipamen berezia egin behar da ondorengo partida eta programetan:



**ZUMAIAKO HIRIGINTZA ANTOLAMENDU PLAN OROKORRA:**

2018an 40.000 € jasotzen dira, eta konpromisozko kredituak izendatu dira 2019, 2020 eta 2021 urteetarako, 136.337 € urteko, totalen 450.000 € inbertsioa gauzatuko litzateke.

Biharko Zumaiar Bogan 2015-2025, 1.4 puntuari dagokio Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzea.

**HIRIGINTZAKO AZTERLANAK:**

2018an 160.705 € aurreikusi dira, datozen urtetako inbertsio plangintza eginez. Partida honen barne, hainbat proiektu idatziko dira: Pantxita etxezarreta berrurbanizazioa, Santixoko saneamendu eta ur hornidura proiektua, Marianton haur parkearen proiektu eta obra zuzendaritza, Udaltzaingoaren obra zuzendaritza, Julene aterpearen proiektua eta patioak, Arritokietako ponpategiaren proiektua,... besteak beste

**ESTOLDERIA/ UR HORNIDURA/ TRATAMENDUA**

2018an 1.560.043 € bideratuko dira aurrekontuan duten pisua programa horiek %11,44koa da

Uraren eta saneamenduaren instalazioetan hobekuntzekin jarraitzen dugu, eta 2018rako aurreikusitakoak honako hauek dira:

Clapeta Ortiz, Arritokietako bonbeoa, Juan Belmonte Ur Hornidura, Txepetxa saneamendu sarea berri, Artadi saneamendua, Santixo saneamendurako lehen pausoak emango dira, hirigintzako azterlanerako kontu sailean, esan bezala, proiektua idaztea jasotzen dena.

**MUGIKORTASUNA / IRISGARRITASUNA**

Mugikortasuna eta irisgarritasuna 2018an 625.367 € aurreikusi dira, lehengo urtearekin alderatuz %60,02 haundituko da.

Aurrekontuan mugikortasuneko irisgarritasuna duen pisua % 4,59koa da

Bertan sartu dira:

"Irisgarritasun programa" Helburua: elkarlan bideak jorratuz, Zumaia irisgarritasun taldeak identifikatutako irisgarritasun arazo edota beharrei erantzuna ematea.

San José auzoko igogailuaren eraikitzea. 2017an proiektua egin da, 2018an esleitu eta eraikiko da. Aurreikuspena, 2019ko otsailean amaitzea obrekin.

Larretxon igogailua jartzeko proiektuaren idazketa.

Mugikortasun eta aparkamendu erregulazioarekin loturik, ibaiaren garraio zerbitzua bikoiztu da eta txu-txu trenan jasotzen ditu aurrekontuak.

**ZIRKULAZIOAREN ETA APARKAMENDUEN ANTOLAMENDUAN**

2018an 356.760 € jasotzen dira eta 2017arekin alderatuta %184,27a haundituko da.

Aurrekontuan pisua % 2,62koa da

Emango diren ekintzak:

TAO ordenantza berriaren idazketa

Aparkamenduaren erregulazio sistemaren bigarren fasearen exekuzioa





## Eta inbertsioen zerrenda

ALKATEA: Inbertsioen zerrenda nik informatuko dizuet

Hasi aurretik pixkat jakitearren batzordean ez zaudetenak, hirigintzako batzordean zaudetenak, pixkat ulertze aldera bi zutabe dituzue hor 2017tik 2018ra pasatzen direnak eta aurrekontuan 2018 jasotzen direnak, horrek nahi du esan 2017ko aurrekontuetan sartuta zeudela hainbat obra egiteko baina ez direla gauzatu eta horregatik egiten dira 2018ra pasatzen dira, 2017an eta gero aurrekontuan 2018an jasotzen direnak horiek bai dira 2018ko aurrekontuetatik jasotzen direnak.

Orduan pixkat esplikatzera pasako naiz, Fielatoren inbertsioa pasa da aurrekontuetan 130.000 jaso genituen eta pasatzen ditugu 2018ra.

Seinalizazio trafikoko seinaleak, 10.000€ 2018ko aurrekontuetan

OTA seinalizazio bertikala 10.000€

OTA pintaketa 40.000€

Larretxoko igogailu proiektua 15.250€

San José irisgarritasuna 462.192 jasotzen ditugu 2018ko aurrekontuetan eta ekartzen ditugu 2017tik 328.301

Igogailuaren inguruan partida bat jaso genuen 2017an baina aurreikusten genuen 2017ak emango zuela proiektu bera prozesu guztia martxan jartzeko, dakizuen bezala bilaketa bat jarri zen martxan gero aukeratu ziren bost proiektu udalean sortu zen epai mahai batengatik eta gero baita ere bost proiektu horietatik herritarrak ere bozkatzeko aukera izan zuten,

Puntuaketa horretatik irabazle batek irten zuen, prozesu horrek ia urtebete eraman du eta nahi da jakin aurreko urtean zaila izango genuela aurten hasiera ematea, behintzat jaso egin genuen aurrekontuetan, horregatik, pixkat... jakinen gainean geundela hau gertatuko zela.

Irigarritasuna sustatzeko obrak 50.000€

GIS-erako 4.500

Hirigintzako azterlanak 160.705 €; 2018ko aurrekontuari dagokionez eta 2017tik ekarriko ditugu 24.771

Plan orokorrako 40.000 € 2018ko aurrekontuari dagokionez

Mapa topografikoa 2.000 € 2018. 2017tik 9.000 pasatzen ditugu

Hobetze obra bide publikoetan 10.000 jasotzen ditugu 2018an eta pasatzen ditugu 130.416

Sabaian erabilera publikoa duten garajeak 112.000 2018an 2017tik ekartzen ditugu 98.054

Larretxoko irisgarritasuna 40.000 pasatzen ditugu 2017an

Hiri altzariak 2018an 10.000 jasotzen ditugu eta 2017an 16.756

Makineria 2017tik 1.000 pasatzen ditugu

Inbertsioak euri uren azpiegituretan 10.000 2018an jasotzen ditugu eta ekartzen ditugu 11.149

Artadi Ur hornidura 114.200 € 2018ko aurrekontuetan jasotzen ditugu eta

Inbertsioak ur horniduran 70.350 € eta 2017tik ekartzen ditugu 21.498€

Kolunbarioak, 2017tik pasatzen ditugu 2018ko aurrekontura 50.000

IDAE argiterian inbertsioa, hori aurrekontuetan jasotzen ditugu 2018an 504.219 €

Inbertsioak argiteri publikoan 32.670 pasatzen ditugu 2017tik 2018ra

**Zumaia Udala**

Inbertsioak ur zikin azpiegituretan 46.238 €

Artadi saneamendua 116.778 € jasotzen ditugu 2018an

Artadi saneamendua ekartzen ditugu 2017tik 230.968 €

Baratzak 17.000 € 2018ko aurrekontuetan

Marianton parke estalia ekartzen ditugu 2017tik 257.910€

Eta beheko plaza parkea 15.000 jartzen ditugu 2018an eta 2017tik ekartzen ditugu 21.780

Urola itsasadarra garatzeko plana 8.000 jasotzen ditugu

Amianto estudioa 4.840 €

Azterketa paisajistikoa 16.940 €

Inbertsioa hondartzako instalazioetan 2018an ere bai 21.500 €

Brankako atea 10.000 €

Enplegu bulegoaren ekipamendua 2017tik pasatzen ditugu 4.108 €

Hobetze obrak hezkuntzan 22.000 € 2018an eta 2017tik 330 €

Hobetze obrak sagarbide eremuan 100.500

Liburuak CDak eta bideoak 10.000

Ekipamendu osagarriak 2018an 5.000€ 609 tik

Aita Mari zineko ekipamendua 3.000 € 2018an eta 2017tik 10.236€

Musika tresna eta ekipamendu teknikoak ekartzen ditugu 3.000 2017tik

Ondare industrialak 2000 jartzen ditugu eta 8.000 ekartzen ditugu 2017tik

Jubilatuen etxea 10.000 jartzen ditugu eta 3.065 pasatzen ditugu 2017tik

Baserri bideak eta seinalizazioa 7.600 € jartzen ditugu

Hobetze obra auzo bideetan 35.000 € jartzen ditugu

Inbertsio informatikoak 10.395 2018ko aurrekontuetan eta ekartzen ditugu 5.606 € 2017

Aplikazio informatikoa ekartzen ditugu 7.290 €

Hobetze lanak eraikin publikoetan 50.000 2018an eta ekartzen ditugu 10.380 €

Ordainketa egiteko ekipoa 10.000 ekartzen ditugu 2017tik

Kopuru hauek denak ematen dute 2018ko aurrekontuari dagokionez 2.090.969 € jasotzen ditugu 2018ko aurrekontuari dagokionez eta 2017tik pasatzen ditugu 1.513.134.

Guztira dira 3.604.103 € inbertsioak aurreikusten direnak 2018rako.

2017tik pasa diren partida asko hor jartzen dira aurrekontuak eta exekutatzeko dira edo ez dira exekutatzeko. Hemen kopuru handi bat dago batetik San José igogailuan 328.301 eta bestetik ere bai San Migelko, Artadiko saneamendua ere bai hortik ere kopuru handi bat pasatzen dugu iazko aurrekontuetatik oraingora eta besteak dira partida txikiak, batzuek ez direnak gauzatu batzuek bai eta besteak ez eta hortik ekarri direnak eta osatu direnak 2018ra begira.

Marikruzeri pasako diot orain gastuak:

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): ZORPETZEA

Dakizuen bezala 2015ean hiru mailegu eskatu ziren eta zenbateko bateratua 2.927.827,94 koa zen.

Aurreikusten da 2018ko aurrekontuan jaso diren zenbatekoak izan dira interesentzako 16.422,55 € eta amortizatorako 139.241,05 €.-

2018ko urtarrilaren 1eko saldoa, hau da, 2017. urtea amaituta izango da 1.799.192,54 €koa.

Nahi nuen esan, amortizazioa antizipatu egin dela bi etxebizitza saldu dira eta gaude zain azken edo hirugarren bat saltzeko sinadura gutxi gora behera



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

urtarrilean izango da, berez, lehenengoan izan behar zuen, baina atzeratu egin da.

Hauek dira kontabilitateak jasotzen dituen zenbakiak, esaten dizuet urtarrilean aldatu egingo dira.

Aurrekontuak jasotzen duen amortizazioarekin maileguak suposatzen da 2018an amaituko dugula 2.659.251 €tan eta amortizazioa guztiz 2018an izango da 1.267.876koa, hau da, 2016, 2017 eta 2018an ia-ia zorpetzea erdira jaitzi dugu etxebizitza horien salmentarekin.

Eta azkenik indikadoreak aurrezki gordina, aurrezki garbia eta zorpetzea ez? barkatu didazue konturatzen ari naiz erderaz jarri dudala

2018ko aurrezki gordina 1.475.733koa % 11,65a, eta gutxi gora behera 2017 urtearekin mantendu egiten da.

Aurrezki garbia 1.320.068 € %10,42a hemen igo egiten da 2017 urtearekin konparatzen badugu eta da horregatik zorpetzea ere murriztu egin delako. Eta zorpetzea %1,23 da esan bezala amortizazio antizipatuak egon direnez 2017koarekin alderatzen badugu 1,54koa zela, baina bueno... murriztu egiten da ez?

Hemen ikusten baduzue 2015ean ondo ibili ginen, 2015eko aurrekontuak aurrezki gordina orduan aurrekontua egin zenean ez zegoen zorpetzerik, ez zegoen mailegurik, orduan gordina eta garbiak koinziditu egiten zituen, zenbaki berdina ematen zuen eta orduan 2015ean aurrekontuen 1.260.738ko aurrezki gordina eta garbia jasotzen zituen.

2016an gure lehenengo aurrekontua izan zen, hor aurrezki gordina 1.817.781 igo zen

Eta 2017 eta 2018an mantendu egin da baina 2016koarekin alderatuaz hor murriztu dela begi bistakoa ez? Hor egia esan herritarrentzako egon diren eta martxan jarri diren programa, zerbitzu eta gero zerbitzuagatik da eta baita ere udal sailean berrantolaketa egon den hainbat sailetan ez? Gizarte zerbitzuetan, adibidez, udaltzaingoan horretara goaz eta horrek dakizuen bezala gastuak I, II, IV kapituluetan doazenean azkenean aurrezki gordinen murriztu egiten dira.

Eta ez daukat gehiago ezer esateko,

ALKATEA: Azken puntuaren inguruan pixkat Marikruzek esan duena, azken batean programa berriak sortu dira gu iritsi aurretik aurrekontuetan jasotzen ez zirenak eta nahi eta nahiez eragina izan du aurrekontuetan ez?

OTA berak 371.000 € guztia uste dut jasotzen dituela kostu bezala, gauza batzuek aurre ikusten dira baina inolaz ere ez dira aurreikusten kubrituko dutenik 371.000 € horiek eta gero beste hainbat programa sortu direnak eta beraien kostua daukatenak eta baita ere Marikruzek esan bezala udaletxe bertan ere kontratazio berriak egin behar izan dira, kontu hartzailean eta baita ere udaltzaingoan ere bai eta pixkat datuak desglosatzeko edo ulertarazteko eta besterik ez hemendik aurrera igual pixkat pasatuko ginateke emendakinak onartzen diren edo ez? plenoan sartzea? Eta gero tratatzea emendakin horiek.

Emendakinak?

Ez dakit, honen inguruan zerbait nahi duzuen planteatu edo Marikruzek egin duen proposamen honen inguruan hitza nahi duzuen hartu edo ez, edo



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

zuzenean pasatuko gara oposizioak aurkeztu dituen emendakin horiek tratatzea,

ALKATEAK: Emendakin hauek bozkatu egin behar ditugu. Arritxuk ez dakit hitza nahi duen hartu, Marikruzek egin duen aurkezpenaren inguruan edo aurrera pasako dugun,

Emendakinak aurkeztu direnak, nik uste dut oposizioak, berak, aurkeztu ditzala eta Arritxu Iribarrek eskatzen du hitza,

ARRITXU IRIBAR (EH-BILDU): Euskararen inguruan, HITZArentzant eskatu dugu diru partida handiagoa,

Legealdi hau hastearekin batera murrizketa handia egin zitzaien euskalgintzari, zehazki HITZAri. EH Bilduk sinisten du euskalgintzan eta euskarak bizi duen egoera kezagarria izanik ez du zalantzarik bere erabilerak gora egin dezan helburu hori lortzeko hartzen diren neurrien artean ezinbestekoak direla euskal komunikabideak. Horregatik berriz ere Zumaia EH Bilduk HITZArentzat proposatzen genuen diru laguntza handitzea eskatu udal batzar honetan 15.000 zen udal gobernuaren lehen proposamena ondoren 17.000 igo da guk HITZArentzat beste 3.000 euro gehiago eskatuko ditugu 20.000 euroko laguntza jaso dezaten.

Bere egunean biztanleko 3 euro jasotzen baziren 20.000 hauek orain eskatzen ditugun hauek, 2 euro suposatuko luke Zumaiar bakoitzarentzat 2018 osoan, hau da, guk egiteko epean Zumaiar bakoitzari 2 euro kostatuko zaio HITZA.

Zumaia udal agintarientzat HITZA laguntzeak ez luke gastua izan behar, inbertsioa baizik, inbertsioa euskalgintzan, inbertsioa euskararen, euskararen erabilera handitu nahi badugu ezinbestekoa baita euskal komunikabideetan sinistu eta inbertitzea.

Hori batetik eta bestetik EH Bilduk baloratu nahi du HITZA egiten ari den lana. Euskaraz ematen den informazioa da eta informazio hori gainera gertukoa da. HITZAri esker herriko berriak euskaraz irakurtzeaz gain bailarakoak ere irakurtzen ditugu.

Illo honetan HITZAK 2018 eta hortik aurrera dituen egitasmoei aurre egiteko ezinbestekoak izango ditu ere diru laguntzak, langileak beharko ditu, lan baldintza duinak izango dituen langileria behar du, lan tresnak ere behar ditu eta auto finantzaziorako lanean jarduten arren ezinbestekoa zaie oraindik ere instituzioen laguntza.

Euskara da gure hizkuntza,

Euskarak batzen gaitu eta,

Euskararen inbertitu behar dugu

Zumaiarrek eskubidea dute herriko berriak, bailarakoak eta lurraldekoak euskaraz irakurtzeko, beraz, arrazoiak soberan daude 3.000 euro horiek gehiago eskatzeko.

ALKATEA: Emendakin bakoitza bozkatuko dugu ez?

Bozkatu aurretik, nik pare bat gauza nahi nituen komentatu gai honen inguruan,



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

Arrixuk esan bezala gu iritsi ginenean 3 euro ematen zitzaion HITZari biztanleko Zumaian eta hori bailaran herri bakarra zen ez?

Ez Urola Kostan bakarrik baita ere Urola hortik gora ere bai ez?  
Horregatik eman zen jaitsiera HITZari, azkenean udal gobernu hau euskararen alde dago, nola ez! baina baita ere tratamendu ekitatibo bat emateko komunikabide guztiei eta erabilera guztiei ez? erabakia pixkat hortik joan zen. Euskararen alde dago eta aurtengo aurrekontuetan ere Marikruzek egin duen aurkezpen honetan pantailan jarri duen bezala igoerak egon dira, ez?  
2017ri dagokionez %10a igo da aurtengo aurrekontuetan eta UKUEra edo Mankomunitatea egiten den transferentzia ere bai %62,40ko igoera izan du. Euskararen alde egotea ez du nahi izan HITZari handitu eta horretan mugatzen denik, nik uste dut euskara askoz esparru zabal batean landu behar da eta guk jarraitzeko asmoa daukagu, guk 17.000 euroko proposamen bat egiten dugu eta hau da gutxi gora behera bailaran ematen den batz besteko bati erreparatuz, orduan guk bide horretatik jarraitzeko asmoa daukagu eta emendakin honen inguruan gure aldeko bozka ez du izango.  
Arrixu MaraÑonek eskatzen du hitza, gai honen inguruan

ARRITXU MARAÑON (ES-SV): Para explicar lo que voy a hacer yo. En ese sentido señalar que yo también votaré que no! pero por una razón en el presupuesto original efectivamente aparecían 15.000 euros, en el final que se trae a aprobación aparecen 17.000 euros, creo sinceramente que se hace un esfuerzo en este sentido posibilista además y después del recorrido que voy llevando desde hace año y medio a esta parte pues creo que se está en la línea correcta y en ese sentido pues en esta ocasión no votaré a favor de la enmienda.

ARRITXU IRIBAR (EH-BILDU) : Bi datutxo bakarrik,  
Esan duzu Oier beste herrietan ematen zen laguntza 3 euroko... biztanleko 3 euro baino txikiagoa zela baina beste herrietan berriz ere gogoratu askotan hitz egin dugu honetaz beste barruko laguntzak ere bazeudela lokalak, tresnak, elkar lanerako proiektuak egin, zenbait udaleko zenbait lan HITZari eman, alde horretatik ere beste konpentsazio bat izaten zuten beste herrietan.  
Eta gero euskararen alde egotea ez da HITZaren alde egotea, jakina ezetz. Baina euskara bizi den egoeran euskara indartzea eta kale erabilera indartu nahi baldin badugu eta handitu nahi baldin badugu pauso bat besterik ez da HITZA edo euskal komunikabideen aldeko apustua egitea. Ez da HITZA bakarrik.

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak:** 6 boto (6 EH BILDU,)

**Kontrako botoak:** 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

**Abstentzioak:**



**Zumaia Udal**

onartu.

2017IAKU0008-003-002

**ERABAKIA:** EH BILDUK aurkeztutako 1. emendakina ez da

-----

Hurrengo emendakinera pasako gara

ALEX OLIDEN (EH BILDU): 2. Emendakin hau Udalbitzari buruzkoa da, bi hitz bakarrik udalbitza zer den,

1999 sortutako patzuergoa, Euskal Herrian hasiera bada adierazpenaren aurrean adostasuna azaltzen zuten ordezkari politiko anitzek sortua. Garai honetatik hona egin du bere bidetxo ere eta aurten hain zuzen indarberritze eta eraberritze prozesu bat izan du, orduan bere oinarriko printzipioak eraberritu ditu eta proiektu mordoxka bat ezarri dizkio bere buruari bai epe motzera, epe ertainera eta epe luzera.

Orduan udalbitzari laguntza emateko modu asko daude, bata da patzuergoko kide izatea, ez dugu hori gaur eskatuko.

Beste bat da hor bere gain hartzen dituen proiektuak babestea eta sustatzea eta hain zuzen gaur aurkeztu nahi dugun emendakin honetan hori da proposatzen duguna, badaude proiektu asko interesgarriak izan daitezkeenak "Nazio-eraikuntzan" garrantzitsuak izan daitezkeenak baita ere lkerbiltza, Esperientzia Bankua eta EHNA berriro martxan jartzea.

Kontua udalbitza dela Euskal Herrian nazio gisa hartzen duen erakunde publiko bakarra eta baita ere Euskal Herriaren aitortzarako bide instituzional bakarra, orduan eraikuntza nazionalean horrelako erreferentea izanik guk eskatzen dugu udal batzar honek lehen egin izan duen bezala besteak beste, laguntza bat ematea hain zuzen 10.000 €koa eta laguntza hori izango litzateke eraikin publikoetan egin behar duzuen inbertsioei 10.000 € kentzea, horrek ez du esan nahi inbertsio hori gutxituko denik, behar denean egin daitezke egin beharreko aldaketak presupuestarioak.

Besterik gabe Udalbitzarentzako 10.000 € laguntza eskatzen diogu udal batzar honi.

ALKATEA: Guk gai honen inguruan ezer asko esan gabe, azkenean erakunde eta eragile hamaika gaude eta gai honen inguruan batzordean aurreratu genuen bezala ez gaude alde eta gure bozka ezezkoa izango da honen inguruan

Ez dakit Arritxuk hitza hartu nahi duen emendakin honen inguruan?

Arritxuk hitza eskatzen du:

ARRITXU MARAÑON (ES-SV): Sí en este caso yo creo que no le extrañará a nadie pero en todo caso es la defensa que vamos haciendo nosotros años y años de lo que es la figura de EUDEL, la que representa para nosotros todo lo que tiene que ver con los municipios y con los ayuntamientos, pero no es nada nuevo esto, y en este sentido votaremos en contra.



ALEX OLIDEN (EH BILDU): Azpimarratu nahi dut EUDEL eta UDALBITZA konparagarriak ez direla Udalbitza dela Euskal Herria nazio gisa, nazio gisa, ulertzen dut zuk igual konzepto hori ez partekatzea, baina hartzen duen erakunde publiko bakarra, hori bakarrik azpimarratu nahi nuen.

### **ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 6 boto (6 EH BILDU,)

**Kontrako botoak:** 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

**Abstentzioak:**

**ERABAKIA:** EH BILDUK aurkeztutako 2. emendakina ez da onartu.

-----

ALKATEAK; Hirugarren emendakinaren aurkezpenera pasako gara, Arritxu Iribarrek eskatzen du hitza,

ARRITXU IRIBAR (EH-BILDU): Alokairu laguntzaren inguruan da

2017an EH Bilduk udal batzar honetara bere proposamena ekarri zuenean jasotako lehen erantzuna aurrekontuan ez zegoela 100.000 €ko partida jasota hori izan zen proposamenari egin zitzaion, eman zitzaion erantzuna.

Gure helburua eta proposamena Zumaiarentzat onena dela sinistuta 2018ari begira ezer baino lehen, ezinbestekoa egiten zaigu 100.000 €ko diru kopurua gordetzeko eskatzea.

Gaur onartu nahi diren aurrekontuetan 63.000 €ko diru kopurua prozesatzen da, beraz, 37.000 € gehiago sartzea eskatzen dugu.

EH Bilduk badaki 2017an EAJ-k eta PSE-ren babesarekin onartutako alokairurako gazteen beka, beka hori hobeto daitekeela. Hori bai, horretarako ordenantza aldatu egin beharko litzateke eta sinistuta gaude aldatu beharra izango dela.

EAJ-k alde bozkatu ez arren 30.000 €ko beka osoa ez da banatu, alokairuan bizi diren eta bizi nahi duten askok ezin izan dute eskaerarik egin, aurkeztu, errolda epea handiegia da, alokairu prezioa ez dator bat errealitatearekin, jakin badakigu 600 €ko kontratuak sinatu direla beltzean diferentzia adostuz 700 eta 750 € azpitik zaila da Zumaian etxea alokairuan bilatzea eta ez da asmatutako datua.

Guk ere gaia serio aztertu dugu, landu dugu eta datuak baditugu.

Gazteek bakarrik ez, adin guztietako pertsonak izan beharko lukete alokairurako diru laguntza, etxe bat izatea pertsona ororen eskubidea bai da, oinarrizko eskubidea.

Ez da gaur, hau guztia eztabaidatzeko eguna baina eztabaidatu ahal izateko eta egungo ordenantza ondorioz aldatu ahal izateko dirua behar da eta



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

horregatik eskatu dugu alokairurako diru laguntzen kopurua handitzea. Oinarria da hurrengo urratsak eman ahal izateko 30.000 €tik 63.000 €ra igo da, guk 37.000 € gehiago eskatzen ditugu laguntza hauetan benetan sinisten bai dugu Zumaiarrentzat izan ditzakeen onurak guretzat lehenatasuna bai dira eta nola ba mailegu bat eskatuko genuke epe luzera horretarako hori da proposamena eta nahiz eta mailegu bezala jaso dugu emendakinean udal gobernuan landutako partidak ez murrizteagatik izan da. Denok dakigun bezala mailegu hori ez litzateke gauzatuko gerakina dagoelako eta gainera gastu inbertsio guztiak ez direlako gauzatuko.

ALKATEA: Gai honen inguruan, nik uste dut oposizioa orain dela urtebeteko aurrekontua landu genituenean pixkat sorpresan harrapatu zuela EAJ-k aurkeztutako programa hau eta hortik pixkat hasi da bere ibilbide hau edo pauso hauek pixkat hara eta hona, ez?

Hara eta hona orain dela urtebete orain hemen gure artean ez dagoen zinegotziak planteatu zuen halako zirriborro bat, 100.000 €ko hori eta Zestoan eta Azpeitin indarrean dagoen alokairurako programa hura ekarri zuen gurea planteamendu bezala eta hor jasotzen dute 69 urtetik gora eskubidea dutela eta horrelako gauza batzuek eta nik galdetu nion berari zergatik 69 eta ez 65 ez? azkenean...

Eta gero hortik pasa zarete zabaltzea herritar guztietara, ez? eskubide hau alokairurako. Udal gobernuak programa honen helburua hasieratik garbi izan du eta izan da gazteen emantzipazioa bultzatzea zela helburu.

Zuk diozu herritarren etxebizitzako eskubidea eta gai hori dena 2007ko abenduko plenoan oker ez baldin banago abenduko plenoan izan zen, gazte asanblada hemen aurkeztu zen eta baita ere entzun ere aldarrikapen batzuk etxebizitzaren eskubidea eta... orduan Bildu udal gobernuak, orduko udal gobernuak onartu egin zuen eskubide hori eta lana egin behar zela bide horretaz, ez?

Gero, gu ere bai egon gara eta Bilduk etxebizitzaren inguruan bi gai horietan, eman dituen pausoak izan dira ba... eman dituenak, hor daude eta horietako bat izan zen errekarua ez? etxebizitza hutsei jartzea eta aurtengo ekitaldian Josebak esan zuen ez? gero diru bilketa hori ordenantza fiskaletako plenoetan etxebizitza bideratzeko sustatzeko ez? etxebizitza alokairua edo babestua sustatzeko bideratu beharko litzatekeela diru hori ez? baina ez da hala izan, o sea, bileran, bigarren egon zenean jarri zuen errekarua hori baina ez zuen jarri programa martxan, etxebizitzaren inguruan ez da ezer egin, kobratu egin da baina gero ez zen horren inguruan.

Orduan nik hor pixkat ikusten dut sorpresan harrapatu zaituztela gure aurkezpen honek eta gero ia hor urteak aurrera joan hala egon dira zeuen artean aldaketa batzuek zabaldu danera hasieran orain dela urtebete Zestoa eta azpeitiko proposamena ekarri zen hona eta gero ia urtea aurrera joan bezala zabaldu nahi zen eta guk alderdi horretatik garbi daukagu bidea zein den edo gure asmoak zein diren eta etxebizitzako eskubide hori, nik uste dut oker ez baldin banago Arrixuk beste pleno batean esan zuela Jaurilaritzan onartu da lege bat etxebizitza eskubide sujetoa bihurtzen dela, ez dakit, nola gauzatuko den baina ni seguru nago udaletxeak ez dutela beregana hartuko kostu hori eta kostuetaz hitz egiten ari garenez, niri iruditzen zait eta batzordeetan hitz egin esan dugu gai honen inguruan, iruditzen zait zuek egin duzuen proposamen





horrek irekitzen duela ateak eta ez dakigu zenbat eskatzaile egongo diren eta kalkulurik ere ez, eta irekitzen da ate bat ez dakiguna ze.... Edo zaku bat ez dakiguna zenbateko fondoa izango duen ez?

Horregatik gu ba... gazteei bideratutako programa honetan jarraituko dugu lanean eta gero baita ere sartu zarete 600 € horiek, errola 10 urteko horiek eta guk irizpide horiek ba... iruditzen zaigu zuzenak direla eta 10 urte errolatuta egote hori hemen inguruko udalerrak eta Bilduk gobernaturakoak mantentzen duten Azpeiti eta Zestoa kasuan, bueno... Zestoa ez dago Bildu, Azpeitiko kasuan bai behintzat eta guk jarraitzeko asmoa daukagu, zeren azkenean programa honen helburua ez da kanpotik gazteak Zumaiara etortzea? Programa abian jarri dugunean kontsultak egon dira udaletxean Zumaian bizi ez diren gazteenak, galdezka eta nik uste dut arazoa... guk saiatu behar dugu Zumaian gazteei emantzipatzeko dituzten arazoei irtenbidea ematen ez litzarke, edo Zestoakoak egin dituzten kontsultak Zumaiara etortzeko bizitzera, azkenean Zumaia eremuz mugatua da etxebizitza kopurua ere mugatua da eta niri iruditzen zait programa honen helburua ez dela kanpotik jendea ekartzea baizik eta bertakoak kanpora ez joan behar izatea, alokatzeko dirurik ez dutelako Zumaian ez? eta alderdi horretatik guk 10 urte errolatuta egoteko baldintza hori mantentzen baldin badugu bere zentsua daukadako eta Ardantzabiden etxe tasatuak egin direnean Bilduren legealdian baita ere lehenengo baldintzetan Zumaiarra izatea zen, Zumaiarra izatea zen eta etxe babestuan ere bai, nahi dut esan ez alokairuan bakarrik, etxebizitzarako zerrendetan sartu ahal izateko Zumaiarra izatea zegoen indarrean, gero aldatu egin izan zen tasatutako horietan bete ez zirelako plazak baina hasiera batean Zumaiarrei zuzendutako etxebizitzak ziren tasatu horiek, o sea, horrekin nahi dut esan pixkat koherentea izan behar dugula eta niri iruditzen zait alokairuko gaia ateratzen denean Zumaiar gazteei zuzenduta dela eta ez orokorrean Zumaiara etorri nahi duen edonorentzat.

Eta gero 600 euroko mugari hori, guk hor batzordean orain dela gutxi azalpenak eman zaizkizue, datuak eman zaizkizue, iturriak ere eman zaizkizue eta komunikabideetan ere argitaratu da, Zumaian ehun etxebizitza alokairuan daudenak eta diru laguntza jasotzen dituenak AES-tik PSVtik ba... %93a 600 euro azpitik da, o sea, iruditzen zait baita ere mugari hori jartzea 600 euroko hori helburua daukadala ere bai etxebizitza kopuruak Zumaian behera ez egitea, o sea, igotzen badugu lehenago esan dugun bezala 700 euro eta baita ere niri iruditzen zaidana tope bat gora ez egiteko etxebizitzen alokairuak.

Laburbilduz niri iruditzen zait Bildu sartu dela gai honekin hor, ez dakit, tiövivo batean bueltaka eta orain dela urtebete gauza bat zen, orain beste bat, eta niri iruditzen zait alderdi horretatik, guk garbi dauzkagula eta gu prest gaude ordenantza hori behar dituen aldaketak egitea, behar dituen aldaketak egitea gu prest gaude eta egin beharko ditugu eta ia ari garela jasotzen aldaketa batzuek baina ez doaz pixkat zuek pentsatzen duzuen bide horretatik, ez?

Kopuru aldetik 100.000 € horiek? Niri iruditzen zait pixkat zuen ekarpenak pixkat mugatzen direla Bilduk jartzea ez? baina ez daukala oinarri bat zergaitik jartzen den diru gehiago ez?

Bilduren proposamena hasieran 20.000 € jartzea zen eta bueno... berandu jarri da? Programa berandu jarri da, baina gure bigarrenengo urtean ia jarri da martxan programa eta garrantzitsua behintzat Zumaiar gazteak ika-mika horietan sartu eta gure arteko liskarra horietaz baino arduratu baino nik uste dut



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

nahiago dutela programa bera indarrean jarri dela, hamahiru onuradun daudela eta gero hurrengo urtean, onuradun gehiago ditugun, ez? Eta alderdi horretatik guk gai honen inguruan asko landu dugu, programa ez da Zestoakoa, ez da Azpeitiko eta hor daude alokairu beka sartzen dituen irizpide batzuek aintzindari horiek denak ba... hezkuntzarako, hezkuntzan daudenak diru laguntza handia lortzen dute nolabait mezua zabaldu dena formazioa garrantzitsua dela eta bultzatzeko edo nolabait balioan jartzeko hori eta gero bestetik partekatzearena ez?

Azkenean gure programa honekin %75eko ordaintzea iritsi daiteke partekatzea baldin bada eta niri iruditzen zait partekatzen balio handia daukadala, azkenean etxebizitza eskaintza seguruenik ez da nahi bestekoa gustatuko zitaigun hainbestekoa eta bestetik baita ere baliabideak ahalik eta eraginkor kudeatzeko udal gobernu honen programa honetan nolabait pizgarri bezala jartzen du partekatzea ez? % 75era iritsi daitekeela alokairua kubritzea, hori ez da inongo udalerrietan betetzen, %50era bai, baina beti ere 250 euroko muga, kostako herri batzuetan muga horiek igotzen dituzte baina beti ere tope batzuetara, ez?

Eta besterik ez guk emendakin honen aurrean ere ezezko bozka emango dugu, iruditzen zaigulako 63.000 eurotara igotzea iruditzen zaigula 2018an egongo diren eskaerei erantzuna emango diogulako.

Ez dakit Arritxuk hitza nahi duen hartu?

ARRITXU MARAÑON (ES-SV): Solo explicar que muy breve y que votaré yo también en contra cual es la razón me quejaba en verano de que todavía no se habían puesto en marcha el programa.

Lo cierto es que para después se ha encaminado, se ha puesto en marcha y el resultado desde ese periodo a la fecha en la que nos encontramos han sido yo creo que unos resultados sorprendentemente buenos, digo porque en tan poco espacio de tiempo lograr que trece personas puedan recibir esa ayuda es importante, teniendo en cuenta que hay alguna más pero que no cumplía con los requisitos.

Las cantidades que se presentan en el presupuesto me imagino, me imagino no? van ligadas a aquellos técnicos haciendo un calculo ya de lo que pueda dar de sí el programa a lo largo del 2018 y esa es la razón de la cifra que se pone que es duplicar prácticamente la cantidad no?

Yo creo que es un programa que están haciendo, que está echando a andar y en este sentido hay que ser posibilista teniendo en cuenta además que efectivamente ahí lo ha comentado Oier vivienda no es una competencia municipal eh? Es una competencia del Gobierno Vasco y efectivamente está declarada como derecho subjetivo que derecho subjetivo quiere decir que sí o sí las personas, todas las personas de la comunidad autónoma de la que.. todos tienen derecho a tener los medios para adquirir una vivienda por los medios que sean no? aunque es muy importante, fundamental, que los municipios aparte de todo eso, desempeñen labores para facilitar toda la... Mucho más esa razón y si van dirigidas a los jóvenes y a las jóvenes pues desde luego adelante, en unas zonas además en las que a pesar de todo no es fácil el acceso pero... esta es la razón breve por la que digo que voy a votar en contra de la enmienda tal y como aparece



ARRITXU IRIBAR (EH-BILDU): Ez dut luzatzeko asmorik lehen ere esan dut, aipatu duzun guztia ez dut uste gaur eztabaidatzekoa dela eta bai seguru gaude ordenantzari bueltak emango dizkiogula baina bai oso argi utzi nahi dut behin eta berriz, bitan gutxienez esan duzu ezustean harrapatu zuela EH Bilduk zuek aurkeztutako programak, hori ez da egia, gure herri programan hasieratik zeuden gaiak sartuta, asko landu dugu zuk aipatu dituzu Azkoitia, Zestoa, ba.. bueno Hernani, Oñati, Getxo, Lekeitio, Urnieta, Azkoiti, Zestoa jakina horiek horrelako alokairu laguntzak onartu dituzte ordenantza horiek onartu dituzte guztiak aztertu ditugu, guk ere serio lana egin dugula, gure proposamenak ez direla magia eta txorabioak emanda egindakoak izan eta uste dut ez duela merezi honen gain gehiago luzatzea, izango dugu urtean zehar aukera hitz egiteko, besterik gabe

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Ez nik bakarrik nahi dut esan Arritxuk esan duenarekin guztiz ados nagoela, es que nik 63.000 € horiek oinarri bat dutela, zenbaki hori ez dela así por así jarritakoa.

Nahi dudana esan da esan duzuen eta bueno facebooken edo nonbaiten ere irakurri dut jarri duzuen ohar bat ez? Esaten duzuen zentzugabekeria egin dugula 63.000 € jartzea.

Nik oharra irakurri dut eta horregatik nator hau esatera ez?

Gehien bat zentzugabekeria eta gero hori, esaten duzue ez dela exekutatu ez?

Begira, kasualitatez 30.000 € zeuden ez? Oinarriak diru laguntza tope batzuek dauzka ez? orduan guk udal bezala bermatu behar duguna da gastu horiei korresponditu ezkerok diru laguntza bere osotasunean jasotzea.

Oinarriak esaten dute dirua agortu ezkerok ez diogula emango oinarrietan jartzen du diru laguntza tope hori 160 euro daukate jasotzea baldintza guztiak bete ezkerok eta guk hori bermatu behar dugu, zuk egiten baduzu -160 bider 13-25.000 dira bai? orduan ez da exekutatu bere osotasunean eta 14.000 exekutatu dira? Baina hori da onuradunok betetzen zituzten baldintzen arabera egokitzen zitzaizolako agian beste zenbateko batzuek eta ez 160 euroak, baina guk benetan sustatu eta bultzatu nahi badugu gazte emantzipazioa, nik uste dut merezi dutela gazteak guk udal bezala bermatzea aurrera egin ezkerok 160 euro jasotzekoa.

Orduan 63.000 €ak Arritxuk ondo esan duen bezala onuradunak erruz dator, onuradunak ziren 13. Nik beste zenbaki bat neukan baina azkenean izan da bikoiztea, bikoiztea eta eskaera horiek egon ezkerok bai gazte guzti horiek topea jasotzea, oinarriak dioten edo bestela egin beharko genuen 30.000 horiek edo esplikatzen egon baziren onuradunak 20 adibidez eta 30.000 pasa ezkerok baseak esaten dute egin beharko genuela prorrateo bat eta bakoitzari dagokiona eman ez?

Ez zuten jasoko benetan gu eskaintzen ari garena oinarri horietan? Bai? eta guk hori bermatzeko jarri dugu 63.000 € bai?

Orduan partida hori exekutatu da ia ia bere osotasunean, baldintza guztiak betetzen dituztelako baina agian emaitzak dira 30 lagun eta partida hori exekutatu da %50ean zergatik? Ez dituztelako baldintza guztiak betetzen eta igual 160 euroak egokitu beharrean beste batzuek egokitzen zaizkielako baina nik uste dut edo nahi dut esan serioak izan behar dugula gauza horiekin eta



**Zumaiako Udala**

2017IAKU0008-003-002

zentzugabekeria eta horrelako hitzak transmititzen ditugunean herriari ba... egia esan ez zait egoki iruditzen zere ohar hori kaleratu duzunean niri behintzat inork ez zidan galdetu zenbaki horren oinarria, bai? orduan egia esan horrelako gauzekin niri tristura sartzen zait.

ARRITXU IRIBAR (EH-BILDU): Azkenengoa esan duzu zenbaki horren jatorriaz nahi nuela galdetu batzordeetan, ez zen eman eta batzorde horiek ez ziren egin, bai joan den astera arte baina tira ez daukat asmorik ezertan sartzeko baina esaten dizut 18 eskaera izan dira, bost gelditu dira kanpoan, 14.600 euros exekutatu dira, kanpoan gelditutako hiru erroldagatik da, beste bat diru sarrerak betetzen ez dituelako eta bestea agiriak ez zituelako zuzen.

Uste dugu gure proposamenarekin, zuk esandako guztia eta gehiago bermatzen dela baina oinarri horiek aldatu beharra dagoela eta guk sinisten dugulako jende gehiagora hel daitekeela eta udalak hori bermatu dezakeela ikusita eraginak ze baldintza dituen, besterik ez

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Bakarrik nik ez dut nahi luzatu gai honekin, egia esan, bakarrik esan duzunean batzordean ez zitzaizuela eman zenbakia e.a. guk aurrekontua ogasunean tratatu dugu eta ba... ez dakit, oharra kaleratzeko galdetu ere ez duzue egin, zentzugabekeria hori dela esan bai, baina oinarriak galdetu ez.

Orduan ni behintzat galdetuko bazenidake eta gero galdetu eta gero eta jakin eta gero oinarriak esango bazenuketuen zentzugabekeria zela, sinistuko nuke, baina horrela ez, batzordea ez duzuela egin? Baina ogasunean aurrekontuak tratatu ditugu eh?

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak:** 6 boto (6 EH BILDU)

**Kontrako botoak:** 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

**Abstentzioak:**

**ERABAKIA:** EH BILDUK aurkeztutako 3. emendakina ez da onartu.

-----

JOSEBA JOSU AZPIAZU (EH-BILDU): Gauzatxo bat esango nuke, bozkatu da eta punto, baina ogasun batzordean egia da ez genuela galdetu baina ogasun



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

batzordean aurrekontua aurkezten denean badakigu zenbat zenbaki dauden ez? gero etxean konturatu ginen zenbat zegoen ipinita, baina galdetu ez, baina esan ere ez zenuten esan zergatik zegoen kopuru hori jarrita, ez? aurreratu eta esan eta gero ia ez genuen galdetuko,

ALKATEA: Orain nik hartzen dut hitza,

JOSEBA JOSU AZPIAZU: Ez genuen galdetu eta ez zenuten esan, biak

ALKATEA: Ez zenuten galdetu baina galdetu aurretik komunikabideetara irten zenuten. Galdetu eta irten komunikabideetara?

Komunikabidera zirriborroa aurkeztu ondoren gai bakarrekin irten duzue 63.000 €kin. Orduan komunikabideetara irten aurretik logikoena da, bueno a ver nondik dator zenbaki hau? eta gero gaizki iruditzen bazaizue emandako azalpenak, gustukoak izan ez balira edo ez bazaizu konbentzitu orduan irten komunikabideetara, ez duzue galdetu ogasunean azaldu da, zenbaki aurkitu da, aurrekontuetan 63.000 € horietaz.

Eta gure komunikabideak edukiko duzue irekita, kontinuo, permanente, batzordea izan edo ez izan beti esan izan zaizue abenduaren 5ean aurkeztu ziren aurrekontuen zirriborroa esan zen, nahi duzuen telefonoa hemen, korreoa hemen, hots egin zalantzak baldin baduzue, baina azalpenak eskatu aurretik komunikabideetara irten duzue, azkenean hau da politika ez?

Aurrera joko dugu,

Orain aurrekontuak bozkatzera pasako gara,  
Aurrekontuak bozkatuko ditugu ez? zuzenean

JOSEBA JOSU AZPIAZU (EH-BILDU): Aurrekontu osoaren irakurketa egingo dut, askoz ere laburrago Marikruzena baino,;

#### 2018RAKO AURREKONTUAREN PROIEKTUAREN IRIZPIDEAK

2018ko aurrekontua 2017ko baino %5,15 handiagoa izango da.

Diru-sarrerei dagokionez, 2017. urtean baino 667.781,00€ gehiago dauzkagu.

Baina datu hau ez da oso errealia zeren 9. kapituluan jaso diren 504.219,00 € mailegu baten bidez jasoko dugu (nahiz eta interesik ez izan ordaintzeko) argiterian inbertsioak egiteko, hau da, ez da ohiko diru-sarrera bat. –Hau jarri dut nahi dudalako azpimarratu diru sarrera hau aurten egongo dela baina gero hurrengo urteetan ez dela egongo, egongo dela aurten ez dagoen bezala amortizazio bat-

Bestalde, transferentzi arrunten 4. kapitulua ere ia 300.000 €ko igoera izan du eta aipatzekoa da aurten ere, iaz bezala, Foru Aldunditik datozen albisteak onak izan direla eta 222.944,00 € gehiago jasoko direla aurreko urtean baino.



2. kapituluko zeharkako zergetan ere 234.642,00 € gehiago jasoko dira Ardantzabideko obrak martxan jarriko direlako.

Kapital transferentziak ere igotzen dira irisgarritasunerako eta ikastetxeetako inbertsoetako diru laguntzak aurreikusten direlako.

Zuzeneko zergak ere 152.000 €tan igoko dira.

Bestalde, nahiz eta aurreko urtean baino TAOko sarrera gehiago aurreikusi, 3. kapituluko tasak asko jaitsi dira, ia 500.000,00 €, hain zuzen ere zaborraren kudeaketa berriarekin tasak udal elkarteak kobratuko dituelako.

Inbertsioen salmentak ere jaisten dira, aurreko urtean aurreikusi zen Axularreko lursaila saldu zelako.

GASTUEI dagokionez:

I. kapitulua, PERTSONAL GASTUAK:

Pertsonal gastuak, barkatu, 2017ko aurrekontuekin konparatuz gero, %3,13 igotzen dira (ia 100.000,00 € ) legeak behartzen dituen bi kontratazio egin behar direlako.

Udaltzaingoan ofizial ordearen lanpostua sortuko da eta kontu hartzailetzan diruzainaren lanpostua aurreikusi da zortzi hilabeterako 5.000 biztanle baino gehiago duten herriak behartuta daudelako.

Udaltzaingoan, 3 udaltzainen 7 hilabetetarako prestakuntza ere ordaindu beharko da.

Baita ere, informatikariaren eta kontu hartzailetzako erdi mailako teknikariaren balorazio berriak kontutan hartzen dira.

Baita ere, ogasun batzordean informatu zaigunez, 5. kapituluko kreditu globalean sartu dira badaezpada %1,5eko soldaten igoerak eta harrerako antolakuntzarako zenbait gastu.

Aurreko urtean egindako aldaketa batzuk mantentzea ere ondo ikusten ditugu, hau da, gizarte langile bat kontratatzea asko handitu direlako zereginak arlo horretan eta turismo errefortzurako 3 langile kontratatzea 6 hilabetetarako, turismorako errefortzua zuzenean kontratatuz.

II. KAPITULUari dagokionez, ONDASUN ARRUNTENA:

Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuek ia %3ko igoera izango dute, aurrezki garbia murriztuz 1. kapituluko igoerarekin batera baina iruditzen zaigu justifikatuta dagoela mugikortasun plana, OTA e.a. ,eta gizarte zerbitzuetan ere programa berri batzuk jarriko direlako martxan (aniztasun funtzionala, nagusien behatokia e.a.)



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

Ondo ikusten dugu ere berdintasun plana, eskola kontseiluaren partida handitzea, euskara normalkuntza plana handitzea edo turismo plana gauzatzen hastea eta aurreko urtean kontratatatu ziren 4 hezitzaile eta psikologo bat.

Bestalde, kapitulu honetan, etxez-etxeko zabor bilketa ia desagertzen da udal elkarteak edukiko dituelako eskumenak hemendik aurrera.

#### IV. TRANSFERENTZI ARRUNTAK:

Trasferentzi arruntek %6,6 jaitsi egin dira 2016ko aurrekontuekin konparatuz gero, baina kapitulu honetan ere kontutan hartu behar da hondakinen bilketa udal elkartearen eskumena izango dela 2018ko otsailetik aurrera eta udal elkarteari egin beharreko transferentziak konzeptu honetan ia desagertzen direla.

IV. kapituluan, gazteen emantzipazioa sustatzeko, alokairuentzat aurreikusi diren diru laguntzak 63.000,00 € arte igo dira baina ez zaigu nahikoa iruditzen (hau ikusi dugu) eta emendakin partzial bat aurkeztu dugu diru laguntza hori handitzeko.

Bestalde, berdina Urola-kostako Hitzari diru laguntza handitu zaio 17.000,00 € arte baina hau ere ez zaigu iruditu nahikoa eta beste emendakin bat aurkeztuko dugu.

#### VI. KAPITULUA, INBERTSIOAK:

Aurrezki garbiaren jaitsiera , (beste jaitsiera bat dagoela ez? Marikruz, jaitsiera edo aurreko urteko modukoaren antzekoa da baina)

JOSEBA JOSU AZPIAZU (EH-BILDU): Aurkeztu zenuten lehenengo dokumentuan, jaitsiera txiki bat zegoen baina gero aldaketa batzuek egon dira, ez dakit

Berdin da, jaitsiera txiki bat edo igoera txiki bat, nahi nuen esan, 2018 inbertsio ahalmena, pixka bat jaitsi da, baina kontraesana badirudi ere, IDA Eren maileguaren ondorioz, 2017ko aurrekontuarekin konparatuz gero, %25ean igotzen dira,

Orokorrean inbertsio guztiak iruditzen zaigu egokiak nahiz eta ziur asko beste gauza asko ere egin daitezke baina ez dago dirurik gehiagorako.

Adibidez, zineko aukerak aldatzea eta haize egokitua jartzea ere ondo egongo litzateke baina ez dugu eskatu aurrekontuak ez duelako gehiagorako ematen, agian 2017 urtearen itxiera egiten denean, baloratu beharko litzateke aurrekontuetan sartzea aurretik ikusita ze gerakin gelditzen den.

Ondo iruditzen zaigu, nahiz eta ez izan diru asko, Urola itsasadarra garatzeko lanak mantentzea aurrekontu hauetan, ea behingoz lortzen den administrazio guztien elkarlanarekin zerbait egiten hastea. Finantza plana eginda omen dago



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

eta administrazio bakoitzari zer dagokion zehaztea falta omen da. Ba ea guztiak mahai baten eseri eta lortzen den adostasun bat.

Ez duguna ikusten hain ondo da 2017ko aurrekontuak onartu eta urte osoa pasa eta gero, inbertsioen atalean hauek lehen aipatu dira hor esaten denean 2017tik pasatzen direla 2018ra. Inbertsioen atalean gauza asko ez direla ezta egin ez direla baizik eta egiten hasi ere ez direla. Ziur aski gauza bakoitzak agian bere arrazoia izango du baina garrantzitsuenak, adibidez:

Fielatoen inbertsioak,

San Jose irisgarritasuna, badakit orain beste proiektu bat dagoela baina bueno...

Larretxoko irisgarritasuna,

Kolunbarioa,

Artadi saneamenduko bi partida, bat 2016koa eta bestea 2017koa

Marianton parke estalia edo

Beheko plazako parkea

Guzti horrek ia 1.300.000 € sumatzen ditu.

Nahi dut esan zuek egiten duzue 17an egin eta 18ra sartu, kontua da gauza hauek esan zirela baita orain dela urtebete, eta batzuek inkluso orain dela bi urteko aurrekontu eztabaidan ere bai! akta begiratzen baduzu, adibidez, Fielatoarena

JOSEBA JOSU AZPIAZU (EH BILDU): Bukatzeko,

GERO EH BILDUK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK:

Emendakinak ez proposamenak esan nituenak batzordean

Bestalde, EH Bilduk proposamen batzuk aurkeztu zituen aurrekontu hau hobetzeko eta egin ditugun proposamenetatik, beste batzuk partida batzuetan sartuta zeuden, beste batzuk onartu dira eta beste batzuk ez dira onartu eta horregatik aurkezten ditugu 3 emendakin partzial.

Honako hauek izan dira proposamenak:

1. Nazio eraikuntzako proiektu bezala, hau ikusi dugu lehen, Udalbitzari 10.000 € ematea diru laguntza bezala. Proposamen hau ez da onartu eta horregatik aurkezten dugu emendakin partzial bezala.
2. Urola-kostako HITZari 5.000,00 € gehiago ematea diru laguntza bezala euskararen arloan. Proposamen hau ere ez da onartu eta aurrekoa bezala, aurkezten dugu emendakin partzial bezala.
3. Berdintasun beka kontzeptuan 8.000,00 €ko diru laguntza bat ematea ikerketa bat egiteko emakume zaintzaileei buruz. Udal gobernuak txertatu du hau aurrekontu proiektuan, nahiz eta 6.700,00 € izan sartu dituenak. Onartutzat ematen dugu proposamena.
4. Gizarte zerbitzuetako eraikineko (Brankan) atean, 10.000 €ko inbertsio bat egitea oinezkoen irteerarako. Hau ere, udal gobernuak onartu du eta sartu du proiektuan.
5. Udal eraikinetan amiantoaren estudioa egiteko 10.000,00 € udal gobernuak sartuta zeukan "azterketa paisajistikoa" partidaren barnean.





Partida hau gutxitu du eta sartu du amiantoaren partida 4.840,00 €, orduan hau ere onartutzat ematen dugu.

6. Gero, bestea zen ez zegoen horrela, ez genuen partida bat eskatu Oikiako eskolako txikien festarako partida bat sortzea eta udal gobernuk esan zigun hori aurreikusita zegoela "Eskola Kontseilua"ren partidan. Eta ikusi dugu partida hau asko handitu dela, bikoiztu egin da uste dut eta proposamen hau ere onartutzat ematen dugu.
7. Gero azkena zen, gazteen emantzipazioarena, hau ere ez da onartu eta horregatik aurkeztu genuen, hau da gure irakurketa.

Behintzat, nahi genuen esan proposamen batzuk egingo genituela batzuek onartu direla eta ez direnak onartu izan dira gaur aurkeztu direnak eta ez dira berriro onartu.

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Adierazi duzunaren harira komentatzea aurrezki gordina 5.000 €tan igo dela eta aurrezki garbia ere bai igo egin da, 2017an 1.278.454,00 eta 2018rako 1.320.068,00, beraz inbertsioetako ahalmena galdu ez dugu egin, bai?

JOSEBA JOSU AZPIAZU (EH-BILDU): Ez, bakarrik esan, egon nintzenez zuekin ez dakit zein egun izan zen egon ginenez hiru ordu, dokumentu bat baina ez daukat hemen, inbertsioa ikusten dena aurrezki garbia han azaltzen zen miloi hirurehun eta y pico aurten eta bestean 1.400.000 baina bueno erakutsiko dizut eh? ez dakit bota ere egin dudanez edo ez? baina bueno. Nahi dut esan dokumentu hori gehiago ez dudanez ikusi total antzekoa dela, pixkat igo egin baldin bada ba... hobeto.

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Dena den Joseba zuri aurkeztu zitzaizun formatu ofizialean dakizun bezala ni ez naiz ibiltzen formatu ofizialean eta nire super excellean ibiltzen naiz, orduan detaile horiekin ni ez nintzen fijas, suposatzen dut orain eman zaizuen txosten guztian ondo etorriko dela, hori alde batetik.

Gero bai nahi nizun esan, komentatu nahi nizuna inbertsioen exekuzio faltaren harira esan bezala aurrekontuan zehar joan gara azaltzen ez? baina, badaude udaltzaingoan? Udaltzaingoan inbertsio txiki batzuek egin dira: teiltuan zerbait egin da eta komisiok ere azaldu genuen, nik uste dut hitz egin genuela gauza hauetaz, alde batetik ekarri zirela 120.000 aldaketa bat proiektuaren aldaketa bat eskatu zela, bai? eta horren zain egon gara.

Gero hirigintzan ere nik uste dut pertsona bat faltan izan da, aparejadorea, oso garrantzitsua gainera. Etorri zaizkigunak ba... ez dute lana atera behar bezala edo nahiko genukeen bezala, normala da baita ere leku batera berri sartzean martxa berdina ez jarraitzea, ez? Baina nahi nizun esan da inbertsioetako San José kalean adibidez 357.000 daude jasota, lanean dabiltza baina guk ez ditugu azkenean plazoak jartzen, kronogramak ere egiten ditugu baina gero bete den edo ez den bete ikusiko da 2018an sartu dugu gainontzekoa eta bi urteetarako dirua behar da inbertsioa bere osotasunean egiteko ez?

Hori ere, nahi baduzue azalduko zaizue eta dena den martxoan likidazioan ikusiko ditugu exekuzioak, ez? nola doazen e.a. zeren oraindik nire iruditzen zait



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

oso azkar ari garela exekuziotaz hitz egiten kontabilitatea dagoen egoeragatik kontu hartzailletzan atzeratuta dagoenean.

Ni ibili naiz begiratzen dena den eta 6. kapituluan bai! badakigu oso baxu goazela baina hori egia izan ez da gure nahia, porque horrek egiten du posibilitateak hurrengo urterako azkenean murriztu egiten dizkigu ez ditugunak exekutatzeko, galdu egiten baditugu Artadiko saneamenduari hori pasa zaigu, hor ere arazo bat egon da baina azkenean gauza batzuek ez daude gure esku, guk nahi dugu aurrekontuan jartzen den guztia exekutatzeko eta egitea porque bestela hurrengo urterako beste asmo batzuek dauzkagu eta ezin izango ditugu bete porque arrastaka dauzkagu aurretako urteetakoak ez? Dena den kurioa iruditzen zait, nik egia esan aspaldi irakurri nuen Joseba! eta nik Baleiken adibidez ere, zuek ari zarete guri orain leporatzen exekuzioena, nik batzorde bertan ere esan nuen, ez zirela gure gustuko exekuzioak inbertsioetan batez ere, nik hori esan nuen, dena den nik hemen badaukat Baleikeko artikulua bat non esaten duen errekonozitu nuen datuak eman baino lehen emaitza horiek ez zirela guk nahi genituenak, gu nahi duguna honelako hau da urtean daukagun diru guztia erabili eta herrian inbertitu, Nik ere bai! Hau da dagoen diru guztia herrian inbertitu eta proiektu guztiak gauzatu, Nik ere bai! hori da nahi duguna baina ezin dugu ezer bermatu zeren askotan gauzak ez dira ateratzen nahi den bezala, bai?

Gero ni ez naiz ezta politiko profesionala ni ere ez, horietako bat dena esan eta egiten dutenetakoa, ni ere ez! saiatuko gara hori ziur baina ez dut inolako hitzik eman edo ulertuko dugunik esaten, lehen esan dudana bezala eta plenoan esan dugun bezala ez gaude konforme lortutako emaitzekin, Ni ere ez! eta saiatuko gara aldatzen. Ez badugu lortzen ez nuke arazorik edukiko dagozkidan ardurak uzteko eta inolako zalantzarik gabe. Hori denborak esan beharko du eta urtetako ohiturak ezin litekeela urte bat, bi edo agian bitan aldatu bai?

Nahi dut esan zu zeunden, ni orain nagoen egoeran eta zuk hau aurreikusi, zuk hau pentsatzen zenuen, nik ere bai, bai?

**JOSEBA JOSU AZPIAZU (EH-BILDU):** Dena dela argi geratu nahi nuen nondik atera duzuen hori?

Ez naiz gogoratzen eta esan duzunean berehala gogoratu naiz, baina ni gogoratzen naiz ni sartu nintzenean lehenengo urtean inbertsioetan portzentaia oso baxua izan zela exekutatu genuena baina begiratzen baduzu hirugarrena uzten dut dela, ez dakit, 2010 den bai kuantitatiboki edo kualitatiboki uste dut 10.000.000 gastatu zirela inbertsioetan eta portzentaia izan zen %80a baino gehiago, inbertsioetan oso zaila da portzentaia batetik pasatzea ez da gastu arruntean bezala eta dena dela ez dakit baina nik ez dut esan zuek nahi duzelako hau egin duzuela, o sea, nik nahi dudana esan gauza hauek apuntatu ditudanean hemen oso zaila dela beti nahi dena egitea edo nahi duzuna egitea, administrazioa ez da gauza bat ni joaten naiz eta nahi dut telebista bat erosi hartzen dut dirua joaten naiz eta erosten dut, baina hemen ez da horrela, zoritxarrez, oso oso lentoa da gauza eta gauza batengatik edo besterengatik atzeratu egiten dira gauzak, baina ez inakzioa dagoelako, baizik eta gauzak ez direlako ateratzen nahi duzun bezala, hori horrela eta lehen Oierrek esan duenean ordenantza fiskalena diruarena errekaruarena inbertitu nik esan nuela hori erabili beharko zela etxebizitza politika inbertitzeko noski, horretarako ere dirua behar da, zeren gure garaian hasi zen bukaeran nire



**Zumaia Udalak**

2017IAKU0008-003-002

legealdi bukaeran zentsu bat egiten etxebizitza hutsarena, hasi, baina azterketa bat egin behar zen horretarako eta gero hurrengo legealdian zentsu hori bukatu ez dakit zenbat denbora eraman zuen errekarua aplikatu ahal izateko eta hori dena informe juridikoak eta halakoak ez zeudela alde.

Gaur egunean epaitegi konstituzionalak arrazoia eman digu hori egiteko. Baina klaro, hurrengo pausoa izango zen errekaruetako dirua aplikatzea baina klaro, denbora behar da.

**ALKATEA:** Oso ondo, ikusten da kobratze hori buru belarri aurrera egin zenutela, informe juridiko kontra egin beharrean aurrera egin zenutela, baina hori aurrera egin zenuen bezala bestea ere martxan jartzea, edukitzea, ere ez zenuten ezer egin horren inguruan eta guk hor, exekuzioari dagokionez zuen garaian ez dakit zer izango zen baina gurean heren bat ez edukitzea hirigintzako sailean, horrek eragina dauka, suposatzen da heren bat falta baldin bazaizu, heren bat ezingo duzula aurrera atera, proiektua daukazuna, ez? edo zailtasun handiak izango dituzula aurrera ateratzeko.

Eta hemen dago beste gai bat ez duela mahai gainera irten eta da OTA.

OTAK hirigintzari, konkretuki, eta udaletxeari orokorrean kriston lan karga ekarri dio, kriston lan karga ekarri, eta ez gara damutzen, eman dugun pausoz, eta gauza batzuek atzean geratu direla? Bueno, baina lehentasuna markatzen ditugu guk, udal gobernuak, eta iruditu zaigu OTA ahalik eta azkarren eta ahalik eta ondoen ezarri beharra geneukala eta kitto.

Eta esaten dizut, udaltzaingoan inguruan hemen orain eztabaida da ez dela exekutatu baina hemen mahai gainean ez da jartzen udaltzaingoetatik eskaera bat zegoela udaltzain etxean, zegoela zegoen egoeran, hori dena hemen mahai gainean jarri beharko da eta esan udal gobernu honek sartu denetik Marikruzek esan du kiroldegia inguruan 15.000 € jartzen ziren aurreko legealdian inbertsioetarako, 15.000 €, esan zuk orain nola daukagun kiroldegia, nola daukagu? Se nos cae a cachos erderaz esaten den bezala eta lehenengo urtean jarri genuen 100.000€; lehenengo urtean 90.000€; aurten 200.00€ mantendurako eta behar diren gauzak egiteko eta hala ere ez da ezer asko igartzen, esango duzu nola aurkitzen den kiroldegia eta Foronda eta beste hainbat gauza, hemen mahai gainean jartzen dira egin ez direnak, egin direnak ez, zuenen adibidez egin direnak ez dituzue zorionduko, baina beste gabe nik alderdi horretatik ez daukat beste esatekorik.

**JOSEBA JOSU AZPIAZU (EH-BILDU):** Nik uste dut irakurri dudana ia gauza guztiak hori kenduta beste denak onak direla, baina bueno. Irakurri dudana, hori kenduta eh? beste denak esan dudanak uste dut,

**ALKATEA:** Irakurri duzuna pixkat zen Marikruzek irakurri duenaren datuak, eta zorpetzeak eta nondik jaitsi den nondik igo den, pixkat errepasoa Marikruzek egin duen datuekiko, gehientsuena, eta gero tartean egon dira zuen proposamenak, onartu direnak, ez direnak, ez? tartean sartu dira.

Nik pixkat hau alde batera utzita aurrekoari dagokionez, nahiko nuke pixkat komentatu hirigintzan heren bat izan ez dugun bezala, 2017 urte honetan aurrekontuak lantzen ditugunean kontu hartzailetzan ere arazo handiak izan



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

ditugula eta nahi diot zoriondu Marikruzi eta Esther Aizpuruari egin duten lana aurrekontu horiek prestatzerako orduan. Lana izan delako itzela pixkat, herena esaten ari zarete hirigintzan, kontu hartzailetzan ez daukagu kontu hartzailerik, daukaguna da Zarauzkoa %20an eta kontu hartzailearen laguntzailea bajaran dagoelako udara ondoren eta alderdi horretatik ere bai ba... esfortzu bizi bat egin dela aurten ere abenduan ekartzeko aurrekontu hauek, oso landuak dira denon artean, baina egia esan forma ematea gure asmoei, udal gobernuak zituen asmoei ba... azkenean kontu hartzailetzatik egin behar izan dela ez?

Eta besterik ez, oposizioari dagokionez lantzeko orduan egia esan, aurten zazpi programa izan ditugu, zazpietatik lau onartuak edo Bilduk eskatu du liberazio erdia, zaintza beka berreskuratzea, Brankako atea egitea eta Amiantoan estudioa egitea eta horiek onartu dira eta gaur aurkeztu dira hiru emendakin eta hiru emendakin horiek ez dira onartuak izan, batzordean esan genuelako baita ere ez genituelako ikusten gurekiko horiek onartzeko zirenik.

HITZA-ri dagokionez 3.000 € alde hori dago eta guk hor onespena eman diogu eta ontzat ematen genuen eta beste bien inguruan, hitz egin dugu aurreko edo aurkeztu diren momentuan.

Egia esan, oposizioarekin aurrekontua lantzen egon garenean, saiatu gara aurkeztutako zazpi proposamen horiek zeintzuk ziren guk aurkeztutako zirriborroari gehitzea edo onartzea zirenak eta ezetz iruditu zaizkigunak ez ditugu onartu baina erdiak baino gehiago dira, ez?

Azkenean guretzat saiakera egon dela denon aldetik eta besterik ez, pixkat hori zen gure proposamena edo esan behar genuena aurrekontuen inguruan eta gaurko aurkezpenaren inguruan ba... ez dakit zeinek esan duen astunak direla, lehenagotik beste batekin egon naiz eta berdin esan dit, astunak dira baina niri iruditzen zait aurrekontuak azkenean direla udaletxe bateko plenorik garrantzitsuena eta urtean zehar gure herrirako egingo diren gauzak eta geratzen direnak, proposatzen direnak eta aurrera ateratzen direnak eta alderdi horretatik niri iruditzen zait astuna egingo dela baina niri iruditzen zait garrantzitsuak direla hemen esaten diren zenbakiak eta gaur egin den aurkezpenean ere bai hala ere jartzen zen baita ere grafikoki ba... zeukaten pisua aurrekontuetan ze egoerak egon diren, ze eboluzio egon den eta niri iruditzen zait aurkezpen luzea izan da baina niri iruditzen zait positiboa izan dela han sartuta daudenak ogasuneko zenbakietan pixkat ikusteko ez? azkenean nola desgrabatzen diren 13.500.000 aurrekontuak ez?

Eta besterik ez, ez dakit, Arritxuk hitza nahi duen hartu Arritxu Marañonek hitza hartzen du

ARRITXU MARAÑON (ES-SV): Nada, muy breve para dar una opinión sobre el sentido del voto que todavía no la he escuchado por tener el equipo de Gobierno, es una pequeña broma, pero es que es cierto, este turno yo creo que es también para explicar el posicionamiento del voto dentro de los presupuestos y de la explicación que ha dado Maricruz además de ensalzarse a veces en tanta bronca, yo creo que un poco exagerada de verdad lo pienso.

En todo caso yo decir de manera muy breve que votaré a favor de los presupuestos y decir varias cosas al respecto.



**Zumaia Udala**

2017IAKU0008-003-002

La primera porque efectivamente desde el inicio por parte del equipo de gobierno una apertura total para poder participar de ellos y hacer las propuestas que quisiéramos y en este sentido ha sido así y el talante ha sido abierto y se han recogido propuestas entonces esa es la primera razón, pero luego además hay otras, viéndolos y escuchándolos a lo largo de esta tarde son unos presupuestos continuistas en el buen sentido de la palabra pero lo digo porque son unos presupuestos fundamentalmente de carácter social, bastante social, los marcaría como ya lo hice el año pasado pero en este caso también la importancia que se le debe de dar al departamento de Bienestar Social con unos programas además de los existentes ya por parte que tenían ya del año pasado complementos económicos importantes y también en esta ocasión por primera vez la presentación y la puesta que se hace entre el ámbito educativo y fundamentalmente dentro del ámbito educativo como la escuela pública de Zumaia no? con ese convenio importante firmado con el Gobierno Vasco y esas aportaciones que además a futuro marcarán una serie de obras muy importantes así como la continuidad del convenio también con Maria eta José y en este sentido también recalcar la importancia que veo yo al menos con la continuidad del programa que se presenta y que hemos estado hablando ahora a raíz de la enmienda presentada con Bildu para la emancipación de los y las jóvenes de Zumaia que entiendo también que es importante e interesante que se continúe y ya en otro orden de cuestiones destacar también la importancia por un lado de la continuidad de la instalación del sistema de regulación del aparcamiento de Zumaia, abordando para el año que viene para el 2018 la otra parte del municipio que queda por regular y me parece importante y fundamental y en cuanto a urbanismo, inversiones y demás volver a destacar la importancia de las inversiones, esperemos esta vez sí que vayan arrancando poco a poco de una vez no? pero destacar nuevamente por lo que se vaya avanzando tanto en los ascensores en el de San José que ya va para adelante con el estudio del otro nuevo así como las obras de saneamiento tan importantes como Artadi que sigue ahí, Es que ciertamente genera problemas y habrá que ir avanzando pero lo importante que es la partida económica y lo fundamental no? pues están los presupuestos,

Esto es y básicamente a grandes rasgos las cuentas de las razones para votar a favor de estos presupuestos y termino diciendo que ha sido un trabajo importante y en este caso por parte de hacienda además porque efectivamente hemos estado todo el año prácticamente sin interventores unos que venían y otros que se marchaban y otros que volvían a venir y otros que se volvían a marchar y creo que haber llegado a estas fechas y con este proyecto pues es importante.

ALEX OLIDEN (EH-BILDU): Nik hemen eta nahiko mamiz eta mami puntuetan nahiko hitz egin da.

Bakarrik puntualizazio bat liberazio erdiaren inguruan guk eskatu genuena bakarrik izan da liberazio erdiaren inguruan guk eskatu duguna bakarrik izan da aurrekontuak aurreikustea legeak agintzen duena, besterik ez dugu eskatu.



**Zumaiako Udala**

2017IAKU0008-003-002

Baina nik orain fokoan jarri nahi nuke prozedura kontuetan. Eduki dugulako gure liskartxoak eta pixkat nik uste dut argitzea ere komeni dela.

Datu batzuek azaltzen hasita, ia da, abenduaren 5ean izan zela lehenengo kontaktua eta lehenengo aurkezpena, guk ez dugu efektibotzat hartzen besteak beste ez genuelako izan ez da partekatze modurik artxibo digitalean ere ez genuelako izan eta orduan zailtasun handiak hor inolako lanik egin ahal izateko, guretzako aurkezpen ofiziala abenduaren 12an ogasun batzordean izan zen eta gero hortik proposamena lantzeko epea abenduaren 20a zen eta abenduaren 21 irizpena lantzeko epea, orduan nahi den bezala zortzi, bederatzi, hamabost egun, hamabost egun segun nola kontaktatzen den gehienez eta asko jota udaleko erabakirik garrantzitsuena guretzako behintzat tramitatze eta gure iritziz epe horretan ez dago lanketa bat egiterik kondizio minimoetan eh?

Gure aldetik zinegotzi batzuek ahal izan duten moduan teknikariekin eta bildu izan dira eta lantzen saiatu dira urritik hasita, beste batzuek urrian bertan ia eskatzen zituzten batzordeak, aurrekontuaren inguruan lanketa hori egin ahal izateko, erantzuna izan zen Marikruzek esan duen bezala aurrena ogasunean aurkezten direla, ados egon gaitzke baina guretzako oso inportantea da baita ere azalpenak batzordeetan ematea, ez ogasunean bakarrik, ogasunean datuak enbuto batetik bezala, zuek badakizu nola izaten den hori eta datu multzo ikaragarri bat jasotzen da gero digeritu egin behar dena eta guk inportantzi handia ematen diegu eta eskatu egin genuen hain zuzen, batzordeetan ere lantzea nahiz eta aurkezpena eta gero izan.

Aurkezpena eta lehenago baldin badira baita ere ontzat ematen genuen. Kontua da hilaren 12an aurkeztu zenetik 21era ez zegoela astirik, batzorderen bat edo beste egin zen, berandu oraindik koinziditzen irizpen egunarekin ez dakit zer eta beste zenbait ataletan edo sailetan ez zen ezta batzorderik egin, Orduan horrek garbi uzten du zeuden bi helburu ez zirela bateragarriak, abenduaren 12an aurkeztea aurrekontuak eta gaurko egunez aprobatazea helburu bat izan zitekeen eta guk ulertzen dugu helburu hori baina lanketa ona egitea epe horretan ez da posible eta horrek baita ere nik uste eragina duela aurrekontu partehartzailetan egia da zera diferenteak dauzkagula, ikuspegi diferenteak, aurrekontu partehartzaile batzuk zer diren ulertzerako orduan, ondo dago baliabide telematikoa jartzea, ondo dago buzoia ere martxan jartzea, ondo dago iradokizunak eta jasotzeko modu horiek bideratzea, baina baita ere gure ikuspuntutik behintzat zuzeneko ekitaldiak inportanteak dira, eta ez bakarrik azalpenak emateko baita ere inbertsioen atalean herritarrak zer esana izateko eta beraien iritzia edo erabakia ere bai, momentu batean, hartu ahal izateko.

Gure iritziz garbi dago aurten behintzat eta espero dugu hurrengo urteetan gauzak hobera joatea, ematen du ari direla pixkanaka, baina ahalmen hori edo lanketa hori beste modu egokian egin ahal izatea.

Horrek ez du kentzen, horrek ez du kentzen eta bereziki hau zuri dagokizu Marikruz egin duzun lana bai zuek eta bai kontu hartzailetzako langile taldeak eskertzea, guk zuek esan duzun bezala egin ditugun galdera guztiak, egin ditugun kontsulta guztiak, azkar eta ondo erantzunak izan dira eta alde horretatik publikoki eskerrak eman nahi dizkizut, baina esandako guzti horrengatik eta espero dugu hurrengo urterako aurrekontua esan bezala denean udal batzar honek hartzen duen erabakirik inportanteena lanketa txukunagoa egin ahal izatea gutxienez batzordeetan ere azalpenak entzun



**Zumaiako Udala**

2017IAKU0008-003-002

ahal izateko, proposamenak egin ahal izateko, denbora pixka batekin lanketa egin ahal izateko.  
Horregatik gure bozka abstentzioarena izango da.

MARIKRUZ ALVAREZ (EH BILDU): Esan bezala, biok korreo elektronikoz komentatu da gai hau, nik ez dut zuk bezala ikusten, zuk esaten duzu zuretzako aurkezpen ofiziala 12an izan zela, niretzako pertsona batekin hiru orduz eserita egotea aurrekontuko kontu sail guztiarekin ba... ofiziala? Niretzako ia aurkezpen bat da ez?

Zuretzako ez! Niretzako bai!

Aurrekontuak lantzerako orduan elkarlanerako ez da behar batzorde bat egitea. Ez da behar Alex. Eta daukazu galdetzea edozein beste edozein herrietan beti dena batzordeetan egiten den ala ez.

Zure ikuspuntua da, nik nerea ematen dizut.

Kondizio minimoak ba... benetan eta eskertzen dizut zure hitzak eta horretarako ez naiz asko sartuko gaiarekin zeren bestela igual berotu egiten naiz, baina kondizio minimoak esaten duzunean egia esan niri ez zait ondo iruditzen, zeren esan bezala komisio minimoak daukazu esatea informazio falta daukazunean eta zuek hori ez duzue izan inongo momentuetan, ni esan bezala abenduaren 5ean eserita egon nintzen hiru orduz Josebarekin, 12ra arte ez ginen gelditu baina kontaktuan jarri ginen eta beti esan dizuet edozertarako zuen esanetarako, deitu lasai, gelditu nahi baduzue, edozer, ondo esan duzun bezala egin dituzuen kontsultak, galderak, erantzun zaizkizue baina guztiz irekiak, o sea, zenbakiak dena nire ustez eman zaizue informazioa nik ez dakit, horrela ematen den egia izan, porque nik vamos... zera guztiakin ematen nizuen, zuek ere zenbat eta argiago edukitzeko kontu guztiak eta guztiok modu erabilkor batean lana egiteko.

Orduan kondizio minimoak agian zuek nahi izan ez duzelako ez dituzue izan, porque aurrekontua nik egin dut eta ni zuentzako zuzen zuzenean gelditzea zeneukaten eta edozertarako vamos... gainera oportetara ez naiz joan, Zumaiian nengoan.

Arritxurekin berdin, neurri berdinean egin dut lan, extra ofizialki azaldu diot, porque nik ulertzen dut batzordeetan azkenean kontu pilo bat dira, informazioak dira, eta nik ulertzen dut batzordeetan oso zaila dela dena eta nire aldetik disponibilitate guztia denekin egoteko. Bai gaueko 12ak arte ere, berdin zait baina nire asmoa zen elkarlana eta elkarlanaren bitartez aurrekontua osatzea, orduan guri leporatzea kondizio minimo horiek, niri egia esan ez zait batere egokia iruditzen eta nire desadostasuna.

Eta horixe, ez dakit beste zer edo zer neukan baina joan egin zait, orduan horrekin nahikoa eta eskerrik asko.

ALKATEA: Bozkatzera pasa aurretik, pixkat egingo da laburpentxo txiki bat, gaur hemen aurkeztu ditugun aurrekontuen harira, nik uste dut partidaz partida azaldu dugula eta ez naiz asko luzatuko baina gustatuko litzaidake azpimarratzea aurrekontu hauetan gauza batzuk aurrekontu honetan... eman diren pausoak edo hezkuntzari dagokionez buelta handia eman diogula, astindu handia eman diogula hezkuntzari dagokionez, bai kontzertatuan eta bai publikoan ere bai eta gero baita ere aurrekontu hauetan ere aurreko urtean



**Zumaiako Udala**

2017IAKU0008-003-002

alokairu beka sortu bazen programa, aurten ere pixkat gustatuko zitzaidan azpimarratzea beste bi programen sorrera ez?

Bata adinekoen inguruan eta bestea gazteen inguruan ez?

Nagusien behatokia eta gazteen programa ez?

Nagusien behatokiari dagokionez iruditzen zaigu programa martxan jarriko dela, oso interesgarria izango dela udaletxearentzat, orokorrean, etorkizunari begira, ze gabezi daukagun eta alde horretatik etorkizunari begira ze pauso eman beharko genituen edo pixkat situatu ez? ze behar izango ditugu etorkizunari begira, ez?

Eta gaur egun dauden nagusiak ze egoeretan aurkitzen diren eta azterketa horren niri iruditzen zait oso baliagarria izango dela ba... Zumaiako herriarentzat, ez?

Eta gaztearen programa ere bai hau da azkenean dakizuen bezala ingurumen sailetik joango da eta pixkat helburu hori, gazteak, ingurumena eta naturari dagokionez sentsibilizatzea eta nolabait modu arduratsu batean jokatzeko neurriak edo programak martxan jartzea ez?

Hainbat ekimen aurrera eramateko asmoa daukagu gazteen programa horrekin, ikastetxeekin lana egiten, guraso elkarteekin lan egiten eta pixkat gazteak kontzientziatzeko helburuarekin ez?

Eta besterik ez, bukatzeko horixe zen pixkat nahi nuena azaldu gaur hemen plenoan

Bozkatzera pasako gara eta

Aldeko bozkek aurkeztutako emendakin honi? 7 bozka

Abstentzioak? 6 bozka

## **ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

**Kontrako botoak:** 0 boto

**Abstentzioak:** 6 boto (6 EH BILDU)

**ERABAKIA:** 2018. Ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartu dira behin-behineko izaerarekin.

## **2.- ESKARI-GALDERAK.-**

ALKATEAK: Eskerrik asko denoi eta urtea ondo bukatu eta hobeto hasi

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria





**Zumaiako Udala**

2017IAKU0008-003-002